



HAL
open science

Euskarazko artikularen sintaxiaz

Sonia Rodriguez

► **To cite this version:**

| Sonia Rodriguez. Euskarazko artikularen sintaxiaz. 2003. artxibo-00000038

HAL Id: artxibo-00000038

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000038>

Submitted on 30 Nov 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

*Euskal artikularen sintaxiaz**

Sonia Rodríguez

2003ko ekainaren 20an

0.- SARRERA

Lan honetan euskal artikularen balio ez-espezifikoa aztertuko da, determinatzaile sintagmak betetzen duen lekuan, daukan funtzioan eta aurkezten duen hitz hurrenkeran oinarrituz, eta analisia, beti ere, absolutiboz markaturik agertzen diren determinatzaile sintagmetara mugatuko da. Lan hau euskal artikulak balio espezifikoaz gain unibertsalki interpretapen honetarako aproposak diren testuinguruetan balio ez-espezifikoa ere izan dezakeela erakustera dator.

Tradiziozko gramatikak abiapuntutzat hartu ditut gai honen inguruan proposatu diren teoriaren edo deskribapenen berri izateko. Hauetan aurkitu ditudan ahuleziak edota, kasu batzuetan, desegokitasunak ere plazaratu ditut lehenengo atalean. Gabezia hauek aintzat hartuta, determinatzaile sintagmaren portaera sintaktikoaren deskribapen sakon bat burutu dut; honetarako euskal datuak bildu ditugu sei hiztunen lankidetzari esker. Datuen bilketarako galdetegi bat prestatu dut. Honetan jasotzen diren emaitzak lanaren aztergai bihurtu dira.

Aipatutako galdetegian jaso diren emaitzek erakusten dute badirela arrazoiak euskal artikulari dagokionez, joera unibertsalak euskarari egozteko. Izan ere, emaitzak sailkatu ondoren, beste hizkuntzetarako proposatu diren hipotesiak euskararen kasuari egokitu dizkiot. Esate baterako, determinatzaile sintagmaren numeroan oinarrituz, batetik, singularren eta bestetik, pluralen eta masa izenen arteko bereizketa bat ezarri dut. Plural eta masa izenetarako Longobardi (1994) eta (2000) zein Artiagoitia (2002) lanak aintzakotzat hartu ditut, hauen bitartez ezin hobeki azal baitaiteke euskarazko adibideetan dakusaguna. Halaber, singularren kasuetarako Bosque (1996) lanean aldarrikatzen den inkorporazioaren aldeko teoriari jarraitu diot eta honetan aurki daitezkeen salbuespenen edo kasu berezienen berri eman dut. Azkenik, topikotze egiturei ekin diet, honetarako Rizzi (1997) lanean oinarrituz. Euskara italiarekin eta ingelesarekin erkatu ondoren, euskal topikalizazioak ingelesez gertatzen denarekin antz handia

*Eskerrak eman nahiko nizkieke lan honetan erabilitako galdetegian parte hartu duten hiztunei eta bereziki Xabier Artiagoitiari egindako zuzenketa eta ohar baliotsuengatik. Ikerketa hau PI 98/127, 9/UPV00033.130-13888/2001 eta BFF2002-04238-C02-01 proiektuen dirulaguntzaz burutua izan da.

duela ondorioztatu dut eta ideia hau berau argudiatzen duen Ortiz de Urbina (1999) teoriari jarraitu diot datuak azaltzeko orduan.

Hau guztia kontuan izanda lana antolatu dugu modu honetan; lehenengo atalean litetaturari buruzko kritika egin dut; bigarrean, azterketarako erabilitako lanabesak aurkeztu ditut, hots, prestatutako galdetegiaren deskribapena, helburua eta emaitzak batetik, eta bestetik emaitza hauek berauek azaltzeko erabili diren teoriak. Bigarren atal hau, aldi berean, azpiatal ezberdinak ditu. Lehenengo azpiatalean galdetegiaren deskribapenaren eta helburuen berri ematen dut. Ondoren, honen emaitzak aztertzen ditut. Bigarren azpiatala teoriako azalpenetara mugatzen da. Eta azkenik, honen guztiaren ondorioek hirugarren atal nagusia osatzen dute. Laugarren atal batean lan hau hobeto ulertzeko baliagarri gerta daitezkeen eranskinak atxiki ditut.

1.- LITERATURAN ESANDAKOAZ

Euskal gramatika tradizionalak aditz sintagmari eskaini izan dizkiote lerro gehienak, eta izen sintagmaren azterketa bigarren maila batean utzi izan dute sarri. Azpiatal honetan gramatika tradizioaletan euskal artikuluari buruz egin diren analisiak bilduko ditut eta, hauetan oinarrituz, erakutsiko dut badirela artikulua sintaxi eta semantikan oso garrantzitsuak diren puntuak, tradizioan kontuan hartu ez direnak.

Euskal artikulua jokabide sintaktiko edota semantikoa aztertzea ez da erraza, asko baitira artikulua portaeran parte hartzen duten faktoreak. Euskaltzaindiak berak onartzen du zailtasun hau (cf. Euskaltzaindia, 1993). Izan ere, Euskaltzaindiak artikulua aztertzen duenean ez du zehazten zein kasutan agertzen den eta zein balio semantiko duen, baizik eta artikulua agertzen ez den testuinguru berri ematea errazena dela aitortzen du:

- (1) *ez da batere gauza erraza noiz eta nola jarri behar diren determinatzaile hauek zehaztea. Artikuluaren kasuan, esate baterako, errazago da esatea noiz ez den erabili behar, noiz ez duen lekurik. Bestelakoetan, normalean, jarri beharko dugu.*
(*Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, 1993: 80)

Euskal gramatikaren deskribapen bat egin nahi bada ez da nahikoa artikulua normalean beti agertzen dela esatea. Artikulu hori noiz eta nola agertzen den zehaztea beharrezkoa da, zaila izan arren. Are gehiago, artikulua daukan balio semantikoa ere aztertu behar da, eta batez ere, balio bat baino gehiago eduki ahal duenean.

Beste gramatiketan ere artikularen analisi partzial bat baino ez da garatzen. Gehienetan azaltzen zaigu euskal artikulua gaztelarazko *el/la* edo frantsesezko *le/la* artikulua baino maizago agertzen dela. Hona hemen puntu hau erakusten duten zenbait aipu:

- (2) *El artículo genérico es de tanto uso en la lengua que ha habido dos tratadistas --Marineo Siculo y Micoleta-- que han dicho [...] que todos los nombres de nuestra lengua terminan en -a.* (Azkue, 1969(1925):264)
- (3) *Le basque se sert du défini beaucoup plus que les autres langues.* (Lafitte, 1979 (1944):70)
- (4) *El vasco recurre al limitativo con mucha más frecuencia que el castellano al artículo determinado. [...] En general, se puede dar como regla que todas las veces que el castellano y francés usan el artículo determinado, el vasco también lo usa.* (Villasante, 1972:108)
- (5) *Lafitte, en su 'Grammaire', nº 158, se ocupa del tema. Como muy bien dice él, el vasco se sirve del artículo definido mucho más que otras lenguas.* (Villasante, 1972: 108)

Aipu hauek guztiek euskal artikulua beste hizkuntzetako artikulua definitua baino sarriagotan agertzen dela azpimarratzen dute. Hala ere, ez dute zehazten zein kasutan eta nola desberdintzen den euskal artikularen erabilera beste hizkuntzetan dauden artikuluen erabilpenetatik, eta agertzen denean ere ez da argitzen artikulua zein balio duen¹. Are gehiago, ez da aurkitzen pasarterik non subjektu eta objektuen arteko bereizketaz hitz egiten den; argumentu eta predikatuen arteko desberdintasunez diharduten pasarteak ere urriak dira; azkenik, determinatzaile sintagmei buruz azterketa sakon bat egingo bada, hitz hurrenkera

¹ Salbuespen bakarra De Rijk (1998 (1972)) lanean topatu dugu. Lan honetan De Rijk ohar baten bidez azaltzen du *-a* artikulua euskaraz bi balio ezberdin izan ditzakeela:

"The singular article -a and its plural -ak are usually definite. However, in the morphologically unmarked case (i.e. the absolutive, or nominative), they can also be indefinite, as e.g. in existential clauses, such as (1)b. I cannot go into the details here, since the conditions under which this happens are highly complex and there are at least three geographically coexisting systems." De Rijk (1998: 158 (15.oharra)).

Ikusten denez, ohar honetan ere De Rijk aitortzen du bi balio hauek noiz gauzatzen diren zehaztea ez dela lan erraza.

bezalako faktoreak, lan honetan erakutsiko dudanez ezinbestekoak direnak, ez dira tradizioan kontuan hartzen.

Aipagarria da baita ere gramatika tradizionaletan artikulua pluralari arretoa berezirik eskaini ez izana. Hau esanguratsua izan daiteke batez ere arrazoi batengatik: plurala delako, hain zuzen ere, anbigutasun gehien aurkez dezakeena. Hurrengo adibideak anbigutasun honen erakusgarri dira:

- (6) Hostoak erori dira
- (7) Umeek opariak ekarri dituzte

Aurreko adibide bakoitzak bina irakurketa eduki ditzake gutxienez. (6)-ko subjektua den *hostoak* determinatzaile sintagma anbigua da interpretapen espezifiko eta ezespezifikoaren artean. Gauza bera gertatzen da (7) adibidean agertzen den osagarri zuzenarekin, hau da, *opariak* determinatzaile sintagmak erreferentzia egin diezaike opari jakin batzuei zein opari ezezagun multzo bati. Lehenago esaten nuen bezala, anbigutasun hau errazago gertatzen da pluralean singularrean baino. Izan ere, aurreko adibideok singularrean jarriz gero, zailagoa litzateke anbigutasunik aurkitzea:

- (8) Hostoa erori da
- (9) Umeek oparia ekarri dute

(8)-ko *hostoa* determinatzaile sintagmak, normalean, irakurketa bakarra jasoko luke, espezifikoa, hain zuzen ere. (9) adibidearen kasuan ere gauza bera aurkituko genuke, hau da, *oparia* determinatzaile sintagma espezifiko bezala interpretatuko litzateke² eskuarki, aukera bakarra ez bada ere.

Deklinabidearen eta artikulua motaren arteko harreman bat ezarri ohi da. Villasantek, esate baterako, hauxe proposatzen du: hitzaren zentzu espezifiko edo ezespezifikoaren arabera,

² Goiko (9) adibidearen kasua konplexuagoa izan liteke, interpretapen espezifikoa [ume guztiek opari bat (bera) ekarri dute] izateaz gain, irakurketa banakaria ere eduki lezakeelako [ume bakoitzak opari bana (ezberdina kasu bakoitzean) ekarri du]. Hala ere, irakurketa banakariaren menpean interpretapen espezifikoa dagoela esan daiteke, azken finean irakurketa banakariaren honako zerbait adieraziko bailuke:

- (i) a. Umeak (bere) oparia ekarri du
- b. Umeak (bere) oparia ekarri du
- c. Umeak (bere) oparia ekarri du
- [...]

Edozein modutan ere, singularrak anbigutasun gutxiago izango luke pluralak baino.

deklinabide mota bat edo bestea erabili behar dela. Azken finean, Villasantek parekatu egiten ditu artikulua eta balio espezifikoak:

- (10) *Según sea determinado o indeterminado el sentido habrá que echar mano de una u otra declinación.* (Villasante, 1983: 16)

Lan honetan zehar, berriz, (10)-eko baieztapenari kontrajartzen zaizkion kasuak agertuko eta aztertuko dira, non izen sintagma bat artikuluekin azaldu arren, interpretapen ez-espezifikoak jasotzen duen, cf. (7), (11)-n errepikatuta:

- (11) Hostoak erori dira

Arestian esan bezala, (11) adibidea anbigua da bi interpretapenen artean. *Hostoak* determinatzaile sintagmaren bidez, erreferentzia egin diezaiekegu hosto jakin edo ezagun batzuei edota lehenago aipatu gabeko hosto batzuei. Hortaz, artikulua agertzeak, hots, mugatua izateak, ez luke beti interpretapen espezifikoak ekarriko. Zentzu honetan, *mugatu* eta *zehaztu* terminuok bereizi behar ditugu. Alde batetik, *mugatu* hitza erabiltzen dudanean erabilera morfologiko jakin bati egiten diot erreferentzia, hots, *-a(k)* artikulua agertzen denean esango dut izen sintagma hori mugatua dela. Bestetik, *zehaztu* hitzak zentzu semantiko bat izango du eta espezifiko hitzaren sinonimo bezala erabiltzen dut lanean agertzen denean.

Modu berean, Txillardegik (1978) lanean ezagutarazten dira deklinabide mugatuak eta mugagabea agertu beharreko kontestuak, eta kasu honetan ere deklinabide motaren eta interpretazio semantikoaren artean erlazio bat dagoela ematen da aditzera:

- (12) *[...] Eman dezagun izaki-multzo bat: etxez osatua, zakurrez osatua edo bestez. Multzo horretako elementuak ezagunak baldin badira elkarrizketan ari diren hiztunekiko; alegia, elementu horiek zein diren hiztunek zehazki dakitenean, mugatua erabiliko da. Elementu bakarra baldin bada -a atzizkia, eta bat baino gehiago badira -ak atzizkia.* (Txillardegik, 1978: 26)

Txillardegirentzat *-a/-ak* artikulua erabiliko lirateke aipatzen d(ir)en elementua(k) ezaguna(k) d(ir)enean bakarrik, hots, zehaztuak direnean. Hurrengo (13) adibidean, berriz, Txillardegik berak proposatzen duenaren kontra doazen adibide batzuk eskaintzen ditut, (13c) adibidea Txillardegik berak jasotakoa delarik:

- (13) a. Zaldiak ugaztunak dira
 b. Ardoa nahi dut
 c. Masailekoa eman zion = le dio un bofetón (Txillardegi, 1978: 58)

Aurreko (13a) adibidean dugun *zaldiak* determinatzaile sintagmaren bidez ez diogu zaldi multzo jakin bati erreferentzia egiten, baizik eta zaldi izatearen propietatea duen animalia motari, artikulua erabilera generikoa dugulako. (13b) adibidearen bitartez hiztunak bere nahiaren berri ematen du baina ez da zehazten zein ardo nahi duen, edota nahi duen ardo entzulearekiko ezaguna den edo eskuragarri duen ala ez. (13c)-ren kasuan, ez dugu erabilera generikorik edo partitiborik, aurreko adibideetan bezala, baina, artikulua erabili badugu ere, ez da, Txillardegik esperoko lukeen bezalaxe, masailekoaren erreferenterik ezagutzen. Honek guztiak erakusten du artikulua mugatua erabiltzeak ez dakarrela beti balio espezifikoa.

Beste alde batetik, garrantzitsua da ohartaraztea euskal artikulua diharduten ekarpen gehienak sarri predikatuetara mugatzen direla³, cf. Villasante (1972:109), Txillardegi (1978:49), Lafitte (1979:70). Lan hauetan erakusten denez *izan* aditzaren atributuekin eta baita *ukan* aditzaren predikatu osagarriekin ere artikulua agertzen da, baina ez da argumentu diren sintagmen gaineko analisirik eskaintzen. Euskal artikulua beste erabilera hau, hots, atributuak diren izen predikatiboekin agertzearena, ez dugu erdaraz aurkitzen, hurrengo adibideetan ikusten den legez:

- (14) Etxe hori zaharra da / Etxe horiek zaharrak dira
 (15) Esa casa es (*la) vieja / Esas casas son (*las)⁴ viejas

Edozein kasutan ere, euskal artikulua erabilera aztertzen denean beti erkatzen da erdaraz aurkitzen ditugun artikuluekin, nahiz eta aurreko (14) eta (15) adibideetan ikusten den bezalaxe, oso erabilera ezberdinak izan ditzaketen. Izan ere, predikatuen alorrean konparatarik egin nahiko bagenu, euskal artikulua eta erdarazko artikulurik ezaren artean egin beharko litzateke, horiek baitira modu batean edo bestean antzeko balioak erakutsiko litzaketen bakarrak. Hau erakustera datoz hurrengo adibideok:

- (16) gizona hiz

³ Lan hau argumentuak diren izen sintagmetan oinarritzen da. Predikatuei buruzko azterketa berriago baterako ikus Artiagoitia (1997), Laka (1993: 2. atala) eta Zabala (2001: *A grammar of Basque* lanaren 4.2 atala).

⁴ Kasu honetan *las* artikuluaekin balio identifikatzailea genuke, ez predikatiboa, hau da, bi entitate berdindu egiten dira, bata bestearekin parekatu egiten da, eta ez da, ordea, entitate baten predikaziorik egiten.

- (17) eres un hombre⁵ (Lafitte, 1979: 68)
 (18) gizonak zarete
 (19) sois hombres

Aurreko adibideetan ikusten dugunez, euskal artikulua ez lioke beti izenari balio espezifikorik ezarriko. Lafittek (16-17) adibideekin frogatu nahi du euskal artikulua balio espezifikoa⁶ izan dezakeela eta gaztelarazko edo frantseseko *un* determinatzaile zehaztugabe edo zenbatzailearen bitartez ordezkari daitekeela. Baina (16)-ko adibidea (17)-n agertzen den parafraasiaren bitartez ordezkatzear gain bestelako irakurketa bat izan dezake: *eres hombre*. Beraz, ikusten denez, euskal artikulua ez litzateke beti erdarazko artikulua zehaztuaren parekoa izango eta balio espezifikoa izateaz gain, artikulua ezarekin ere pareka liteke, predikatuen alorrean behintzat.

Hala ere, badira aipua kontrakoa, hots, artikulua balio espezifikoa dakarrela esatera datozkigunak. Esate baterako, Villasante (1983) lanetik ateratako hau:

- (20) [...] *Parece advertirse una clara diferencia de matiz entre el predicado con artículo y el que no lo lleva. En efecto, el artículo imprime al predicado un sello o impronta de algo determinado.*
 (Villasante, 1983: 46)⁷

Villasanteren iritziz, euskal artikulua espezifikotasuna lekarkioke predikatuari. Aldiz, aurreko (16-19) adibideetan ikusi dugunez, hau ez da beti horrela; orokorrean, artikulua agertu arren, interpretapen espezifikoa lortzen ditugu euskaraz.

⁵ Argibide gehiagorako, ikus Bosque (1996: 56-63).

⁶ Txillardegik (1978) lanean ohartarazten zaigunez, erdararen eraginez *-a* artikulua izan lezakeen balio ez-espezifikoa galtzen ari da:

"Gero eta maizago, horretara, erdarazko *el, la / le, la* hitzez hitz itzuli nahian *-a* ematen da; eta erdarazko *un, una / un, una* delakoei, bai mugagabe direnean, bai zenbakarri, euskarazko *bat eman ohi zaie*". (Txillardegik, 1978:54).

Honek erakusten du *bat* gero eta maizago erabiltzen dela erdararen eraginez. Txillardegik berak hurrengo esaten du:

"hegoaldeko eskualdeetan *numero-nahasketa dago; eta, nabarmen denez, singularra ari zaio mugagabeari nagusitzen. Hots, etxe bat esanez zehaztu gabe gelditzen da elementua (mugagabe); etxea, berriz, esaten badugu, etxe hau edo etxe hura, denek ezaguna, aipatzen dugularik" (Txillardegik, 1978: 61).*

Azken finean, Txillardegiren arabera zentzu zehaztua dugunean *-a* artikulua erabiltzen da; baina *-a* artikulua agertzen den guztietan ez da balio zehaztua lortzen.

⁷ Kontuan hartu behar dugu Villasantek aurreko aipua erabiltzen duela predikatuek ari delarik; beraz, Villasanteren arabera artikulua balio espezifikoa emango lioke predikatu bati beroni eransten zaionean.

Bestaldetik, argumentu eta predikatuen arteko bereizketaz nola edo hala arduratzen diren tradiziozko lanen artean Villasante (1972) eta Lafitte (1979) ditugu. Lan hauetan determinatzaile sintagmek izan dezaketen balio partitiboari eskaintzen zaio hurrengo aipua:

- (21) *En frases positivas con idea partitiva. "Ura badute=ya tienen agua. "Udare onak baditugu"=tenemos buenas peras.*
(Villasante, 1972: 109, Lafitte (1979)[1944] lanetik hartuta)

Adibide honetan aipagarria da Villasantek izen zenbakaitz bat buru duen determinatzaile sintagma bat izen zenbakarri bat ardatz duen determinatzaile sintagma plural batekin erkatu izana. Aipagarria da arrazoi batengatik: konparaketa honetatik erator daiteke *-a* artikulua bakarrik izan dezakeela balio partitiboa izen mota bi hauekin, hots, zenbakaitzekin eta zenbakarri pluralekin. Baina hau erakusteko beharrezkoa izango litzateke proba egitea legokiokoen izen zenbakarri singularrarekin, hots, *udare ona badugu* adibidearekin. Nekazari batek *udare ona badugu* perpausa erraz esan lezake udare uzta pasatu eta hurrengo egunean fruituak nola dauden konprobatzen ari denean edota fruta saltzaile batek fruta hori saldu nahi duenean⁸. Kasu hauetan *udare* hitzak balio partitiboa gordeko luke. Honek guztiak erakusten du, Villasantek esaten ez duen bezala, izen zenbakarri singularrek ere balio partitiboa erakutsi ahal dutela.

Orain arte esandakoaren arabera, ikusten da tradizioan zehar euskal artikuluari buruz esan dena ez dela nahikoa artikularen hedadura eta balioa zehazteko eta kasu batzuetan ez dela oso egokia. Lan honek erakutsiko du, batetik, artikulua zehaztuz hartu izan den atzizkia ez dela kasu askotan beste hizkuntzetan artikulua zehaztuen pareko, eta, bestetik, atxiki izan zaion balio espezifikoa gain, baduela behintzat bestelako balioa: ez espezifikoa. Balio bat edo beste izatea sintaxiak erabakiko du, besteak beste. Hortaz, lan honetan artikularen balioak aztertuko ditut determinatzaile sintagmak betetzen duen lekuan, betetzen duen funtzioan eta aurkezten duen hitz hurrenkeran oinarrituz. Analisia absolutiboz markaturik agertzen diren determinatzaile sintagmetara mugatuko da.

2.- AZTERKETARAKO LANABESAK: GALDETEGIA ETA TEORIA

2.1.- Galdetegia

⁸ Ohar bedi irakurlea *udare ona badugu* bezalako adibide batean *udare onak* ez diola udare ale bati erreferentzia egiten, baizik eta udare mota bati. Edozein kasutan, balio partitiboari eusten zaio.

Lan honetan egindako azterketa, erabilitako galdetegiaren ondorioz sortu da, hau da, galdetegi honetan jasotzen diren datuek erakusten dute badaudela arrazoiak beste hizkuntzetan arruntak diren zenbait gertakariren gaineko teoriak euskararen kasuari aplikatzeko. Galdetegi honen garrantzia begi bistakoa denez, galdetegia bera testura ekarri dut eta lanaren lehenengo eranskinean agertzen da. Halaber, bigarren eranskinean galdetegitik eratortzen diren emaitzen taulak jaso ditut. Taula hauetan galdekatuen erantzunak eurak agerian dira.

2.1.1. *Galdetegiaren deskribapena*

Galdetegia hiru atal nagusitan banatu da eta lan honetan aztergai ditudan absolutiboz markaturiko izen sintagmek betetzen dituzten hiru posizio sintaktikoei dagozkie: topiko, foko eta hitz hurrenkera neutroko objektu edo subjektu posizioei.

Honetan aldagai ezberdinak hartu dira kontuan: izen sintagmak singularrak edo pluralak diren, sintagma horien ardatzak izen zenbakarriak edo zenbakaitzak diren eta predikatuei dagokienez monadikoak edo diadikoak diren. Sintagma horiek espezifikoa edo ezespezifikoa bezala interpretatzeko aukera eman zaio galdekatuari, aldezturik prestatutako testuinguru baten bidez. Galdetegian zehar nabarmena denez, aldagai hauek interpretapenen zilegitasuna baldintzatzen dute. Hauxe da, hain zuzen ere, aldagai hauek hautatu izanaren arrazoi nagusia. Esate baterako, (22) adibidean ikus daiteke singularrean anbiguitasun semantiko gutxiago izan dezakegula pluralean baino:

- (22) a. Oparia ekarri didate
b. Opariak ekarri dizkidate

(22a) adibidearen kasuan errazago lortuko genuke interpretapen espezifikoa, nahiz eta akaso testuinguru jakin batzuetan ezespezifikoa ere lor litekeen. Aldiz, (22b)-ren kasuan irakurketa espezifikoa gain, ezespezifikoa ere erraz lor daiteke. Hauxe litzateke, besteren artean, numeroa kontuan hartzearen arrazoi bat. Gainera, kontuan hartu behar da unibertsalki lotura handia egon ohi dela pluraltasunaren eta irakurketa ezespezifikoaren artean (cf. Bosque 1996, Longobardi 2000, eta abar). Lan honetan konprobatu nahi dut euskaraz parekotasun hau mantentzen den ala ez. Literaturan batez ere pluraleko adibideak hartu direla kontuan nabaria da; hau dela eta, lan honetan ikusi nahi da pluralean topatzen ditugun anbiguitasun horiek singularrean ere posible direnontz.

Bestaldetik, izen sintagmek ezberdin jokatzen dute burua izen zenbakaitza edo zenbakarria denean⁹:

(23) Ogia erosi dut

(24) Liburua erosi dut

(23) adibidearen kasuan izen zenbakaitz bat dugu, anbigua izan daitekeena bi irakurketaren artean: espezifikoa eta ezespezifikoa. (24) adibideak, berriz, anbigua izatera hel badaiteke ere, ez luke hain erraz honelako anbiguotasunik izango eta testuinguru zehatz batzuetan baino ez luke interpretapen ezespezifikoa lortuko. Beste hizkuntzetan desberdintasunak egon ohi dira [+/-zenbakarri] diren izenen artean (cf. geroko azalpenak). Lan hau euskaraz gauza bera gertatzen den ala ez egiaztatzeraz dator. Honetaz gain, tradizioari errepasso bat egingo bagenio, ikusiko genuke aurkitzen diren adibide bakanetan ez dagoela argi [+/-zenbakarri] diren izenek berdin jokatzen duten ala ez. Izan ere, interpretapen ezespezifikoa berri emateko adibide gehienetan izen zenbakaitzak agertzen dira. Lan honetan egon litezkeen aukera guztiak aztertu nahi dira. Honengatik guztiagatik, lan honetarako esanguratsu deritzot [+/- zenbakarri] aldagaiari.

Determinatzaile sintagma baten barruan, beraz, tasun hauek guztiak biltzen dira aldi berean. Hau da, izen zenbakarria buru duen determinatzaile sintagma singularra espezifikoa edo ezespezifikoa izan daiteke testuinguruaren edota posizio sintaktikoaren arabera, eta abar. Horregatik, izen sintagma baten burua den izena [+/- zenbakarria] izateak eta determinatzaile sintagma hori [+/- singularra] izateak garrantzi handia izango dute sintagma hori interpretatzerakoan.

Azken aldagai gisa, predikatu mota bi aztertu ditut: monadiko eta diadikoak. Hauek aukeratu ditut lan honetan aintzat hartu izan diren sintagmak absolutiboz markaturikoak direlako eta kasu marka hau daramaten sintagmek bi posizio sintaktiko ezberdin bakarrik bete ditzaketelako: perpaus iragankor baten objektu posizioa eta perpaus iragangaitz baten subjektu posizioa.

⁹ Euskarazko adibideen parekoak izango lirateke frantseseko edo gaztelarazko hauek:

i) J'ai acheté du pain / He comprado (el) pan

ii) J'ai acheté le livre / He comprado *(el) libro

Frantsesez partitiboaren marka den *du* erabiltzen da izen zenbakaitzak zenbakarrietatik bereizteko. Gaztelaraz ere, zenbakaitzekin ez genuke artikulua definitua erabiliko, benetako erabilera zenbakaitza egin nahiko bagenu. Izen zenbakaitz batekin artikulua erabiliz gero izena zenbakarri bihurtuko genuke. Honek erakusten du izen zenbakaitz eta zenbakarriek ez dutela berdin jokatzen hizkuntzaz hizkuntza. Lan honetan euskaraz horrela den aztertu nahi dut.

Aipatutako aldagai guztiak erabili ditut galdetegian emandako aukeren balio espezifikoa eta ez-espezifikoa aztertzeko¹⁰, eta erakusteko, tradizioan zehar artikuluari erantsitako balio espezifikoa gain, euskaraz zilegi dela artikularen bitartez zentzu zehaztugabea adieraz daitekeela esatea.

2.1.2. *Galdetegiaren helburua*

Lan honetarako kontuan hartu behar dugu euskal tradizioan interpretapen espezifikoa eta ez-espezifikoa arteko mugak ez daudela argi eta gabezia honek interesgarri egiten duela azterketa hau. Horretaz gain, geroago azalduko dudanez, euskal artikulua beste hizkuntza batzuetako artikulurik ezarekin lotu daiteke (cf. Carlson (1980); Diesing (1992); Longobardi (1994)). Hizkuntza horietan artikulurik eza eta interpretapen ez-espezifikoa lotuta datoz; beraz, gure helburuetako bat izango da euskal artikulua noiz den espezifikoa eta noiz ez-espezifikoa zehaztea.

Bestalde, galdetegiaren deskribapenean aipatu dudanez, zenbait kasutan determinatzaile sintagma pluralek anbiguotasun gehiago izaten dute singularrek baino. Anbiguotasun horiek direla eta, erakutsi nahi da irakurketa ez-espezifikoa errazago lortzen dela pluralean singularrean baino. Gainera, geroago azalduko dudanez, hau ez da bakarrik euskaraz gertatzen, baizik eta beste hizkuntzetan fenomeno arrunta da.

Anbiguotasunekin jarraituz, lan honen bitartez aztertu nahi da zenbakarritasunak eraginik duen ala ez determinatzaile sintagmak interpretatzerakoan. Beste hizkuntzekin konparaketak egin ondoren, euskaraz ere aldagai honek zeresan handia izango duela erakutsiko dut; hots, izen bat zenbakarria edo zenbakaitza izateak eragin zuzena izango du sintagma horren irakurketa espezifikoa eta ez-espezifikorako. Emaitzetan ikusiko denez, zenbakarriak eta batez ere singularrean agertzen direnean erreago interpretatuko dira espezifikoki pluralekin eta masa izenekin baino. Berrito ere, gertakari hau beste hizkuntzetan ere gertatzen da.

Horrenbestez, aipatutako aldagai hauek guztiak euskal determinatzaile sintagmaren balio espezifikoa zein ez-espezifikoa aztertzeko erabiliko ditut. Tradizioan zehar, artikularen balio espezifikoa hitz egin bada ere, balio ez-espezifikoa nahiko ahaztuta geratu da. Lan honen

¹⁰ Lan honetan interpretapen espezifikoa hitz egiten denean hiztunarentzat argi izan behar da nor edo zer den adierazpenaren erreferentea, testuinguruaren bidez, lehenago aipatua izan delako edota honek ezaguntzat ematen duen informazio bat delako. Interpretapen ez-espezifikoa kasuan, berriz, kontrakoa gertatzen da, hau da, adierazpenaren erreferentea ezaguna izan behar da hiztunarentzat. Kasu hauetan hiztunak ez dauka erreferentea ezagutzeko informazio nahikorik eta horregatik ez-espezifikoa bezala interpretatzen du.

bitartez erakutsi nahi dut euskal determinatzaile sintagma batek balio biak izan ahal dituela. Honetarako, beraz, aurkeztu ditudan aldagai eta datu guztiak kontuan hartuko ditut.

2.1.3. *Galdetegiaren emaitzak*

Azpiatal honetan galdetegiaren erantzunak aztertuko ditut. Testaren emaitzak lau zatitan banatuko ditut. Alde batetik, aipatutako hiru posizio sintaktikoetako emaitzak neurtuko dira hiru azpiatal ezberdinetan, eta bestetik, hiru posizio hauen arteko parekotasunek eta ezberdintasunek laugarren azpiatala osatuko dute.

Aurkeztutako aldagaiek eta aztergai ditudan irakurketa espezifikoa eta ez-espezifikoei zeresan handia izango dute testaren emaitzetan, zeren eta aldagaien arabera irakurketa espezifikoa edo ez-espezifikoa onargarritasun maila aldatuz joango baita¹¹. Hau horrela izanik, gatozen orain emaitzak ikustera.

2.1.3.1. Hitz hurrenkera neutroko absolutibozko determinatzaile sintagmak

Hitz hurrenkera neutroko determinatzaile sintagmek jokaera nabarra erakusten dute, batez ere irakurketa ez-espezifikoa dagokionez. Berriz, **espezifikoa** bezala interpretatzen diren determinatzaile sintagma guztiak onargarriak dira hitz hurrenkera neutroko absolutibodun posizioetan (cf. (25)-(30) adibideak):

- (25) Emakumeak *liburua* erosi du
- (26) Emakumeak *liburuak* erosi ditu
- (27) *Liburua* heldu da
- (28) *Liburuak* heldu dira
- (29) Emakumeak *txanpaina* erosi du
- (30) *Ura* joan da

¹¹ Lanean zehar erabilitako gramatikaltasunari buruzko ikurren esanahia hurrengoa da:

✓ = 6/0, 5/1 proportzioak ditugunean

?✓ = 4/2 proportzioa dugunean

% = berdintasuna adierazteko (hots, 3/3 kasu bakar baterako)

?* = 2/4 proportziorako

* = 1/5, 0/6 proportzioak azaltzen diren kasuetarako

Lehenengo zenbakiak baiezko erantzunen kopurua adierazten du eta bigarrenak ezezko erantzunak.

Irakurketa **ezespezifikoari** dagokiola, berriz, banaketa bat egin beharko da izen zenbakarria buru duten izen sintagmen artean, hots, singularraren (31, 32) eta pluralaren artean (33, 34):

- | | | |
|------|--------------------------------------|---------------------------|
| (31) | Emakumeak <i>liburua</i> erosi du | ✓ (5/1) proportzioarekin |
| (32) | <i>Liburua</i> heldu da | ✓ ?(4/2) proportzioarekin |
| (33) | Emakumeak <i>liburuak</i> erosi ditu | |
| (34) | <i>Liburuak</i> heldu dira | |

Galdetegiaren arabera, pluralaren kasuan, hots (33) eta (34) adibideen kasuan, interpretapen ezespezifikoa onargarria da hitz hurrenkera neutroko objektu posizioan. Singularraren kasuan, hau da, (31) eta (32) adibideen kasuan, berriz, ez da erabateko onargarritasuna lortzen; testaren arabera pertsona batek ez du irakurketa ezespezifikoa onartzen determinatzaile sintagma hori perpaus iragankor baten objektua denean (cf. (31)). Era berean, determinatzaile sintagma perpaus iragangaitz baten subjektua denean (cf. (32)), bi pertsonak baztertzen dute irakurketa ezespezifikoa. Beraz, honek guztiak erakusten duenez, bada ezberdintasun bat singularraren eta pluralaren artean, baita argumentu moten artean ere; hots, perpaus iragangaitz baten subjektua dugunean edo perpaus iragankor objektua azaltzen denean.

Interpretapen ezespezifikoarekin jarraituz, izen zenbakaitzen arloan, erabateko onargarritasuna lortzen da. Horrela, (35) eta (36) adibideetan agertzen diren absolutibozko determinatzaile sintagmak onargarriak dira interpretapen ezespezifikoarekin, eta, jakina, baita espezifikoarekin ere kontsultatutako hiztunentzat:

- | | |
|------|-------------------------------------|
| (35) | Emakumeak <i>txanpaina</i> erosi du |
| (36) | <i>Ura</i> sartu da erlojuan |

Laburbil dezagun. Hitz hurrenkera neutroko absolutibodun posizioetan determinatzaile sintagma guztiak espezifikoki interpreta daitezke. Irakurketa ezespezifikoaren onargarritasun maila ere altua da, nahiz eta kasu jakin batzuetan interpretapen hau baztertzen dutenak ere badiren. Esan daiteke irakurketa ezespezifikoarekin onargarriagoak direla izen zenbakaitzak eta izen zenbakarria buru duten determinatzaile sintagma pluralak singularrak baino. Geroago ikusiko dugunez, hau ez da bakarrik euskaraz gertatzen (cf. Longobardi, (1994)). Hurrengo adibideetan erakusten den bezalaxe, gaztelera bezalako hizkuntza batean determinatzaile

sintagma singularrak espezifikoki -eta ez ezespezifikoki- interpretatzeko joera dago eta artikulurik gabe agertzeko¹² pluralek baino murriztapen gehiago erakusten dute:

- (37) a. Han encontrado el cadáver en un descampado
 b. *Han encontrado cadáver en un descampado
- (38) a. Han encontrado los cadáveres en un descampado
 b. Han encontrado cadáveres en un descampado

Gaztelera ikusi ahal dugunez, interpretapen ezespezifikoa nekez lor daiteke izen sintagmaren burua izen zenbakarri singularra denean, eta batez ere artikulurik gabe agertzen bada. Pluralean, berriz, irakurketa ezespezifikoa erraz lortzen da.

2.1.3.2. Fokalizatutako absolutibozko determinatzaile sintagmak

Fokalizatutako absolutibozko determinatzaile sintagmek desberdin jokutzen dute izen sintagmaren irakurketa espezifikoaren eta ezespezifikoaren aurrean. **Espezifiko** bezala interpretatzen diren determinatzaile sintagma guztiak onargarriak dira fokalizatutako posizioan. Ikus horretarako (39)-(44) adibideok:

- (39) *LIBURUA* erosi du emakumeak
 (40) *LIBURUAK* erosi ditu emakumeak
 (41) *LIBURUA* heldu da
 (42) *LIBURUAK* heldu dira
 (43) *AZUKREA* erosi du emakumeak
 (44) *URA* erori da

Espezifikoki interpretatzen diren determinatzaile sintagmek ez dute beste hizkuntzetan arazo berezirik sortzen onartzerako orduan, ez eta foko posizioan ere, beraz, espero dezakeguna da euskaraz ere arazorik ez egotea. Aurreko adibideetan ikusi dugunez, horrela da.

Ezespezifikoen artean bi banaketa garrantzitsu egin behar dira. Alde batetik, izen zenbakarria eta zenbakaitza buru duten determinatzaile sintagmak erkatu behar ditugu. Galdetegiaren arabera, izen zenbakaitza ardatz duten determinatzaile sintagma guztiek fokalizatutako posizio batean erabateko onargarritasuna lortzen dute irakurketa ezespezifikoarekin. Ikus hurrengo kasuak:

¹² Gaztelera adibide bat baino ez da. Argitasun gehiagorako ikus Longobardi (1994) eta (2000).

- (45) *AZUKREA* erosi du emakumeak
 (46) *URA* erori da

Izen zenbakarria buru duten fokalizatutako determinatzaile sintagmek, berriz, ez dute berdintsu jokutzen, baizik eta beraien artean ere bigarren banaketa bat egin behar da. Batetik, singularrak (cf. (47) eta (48)) bereiztu behar dira eta, bestetik, pluralak (cf. (49) eta (50)):

- | | |
|---|--------------------------|
| (47) <i>LIBURUA</i> erosi du emakumeak | *?(2/4 proportzioarekin) |
| (48) <i>LIBURUA</i> heldu da | *?(2/4 proportzioarekin) |
| (49) <i>LIBURUAK</i> erosi ditu emakumeak | ✓ (5/1 proportzioarekin) |
| (50) <i>LIBURUAK</i> heldu dira | ✓ (5/1 proportzioarekin) |

Singular eta pluralen arteko ezberdintasuna onargarritasun mailan datza. Izen zenbakarria ardatz duten determinatzaile sintagma pluralek ezespezifikoki interpretatzeko erraztasun handiagoa dute singularrek baino. Pluralen kasuan sei pertsonetatik bostek onartzen dute interpretapen ezespezifikoa. Singularren kasuan, ordea, sei pertsonetatik bakarrik bik onartzen dute irakurketa hau. Ez da gertatzen predikatuen araberako bereizketarik.

Laburbilduz: Foko posizioan agertzen diren determinatzaile sintagma guztiak espezifikoki interpreta daitezke. Aldiz, irakurketa ezespezifikoa erraz lor daiteke izen sintagmaren burua zenbakaitza baldin bada edota determinatzaile sintagma plurala baldin badugu. Azken kasu honetan gogoratu behar da ez dela lortzen erabateko onargarritasuna ((5/1) proportzioa ateratzen da). Hala ere gehiengoak onartzearen alde egiten du. Ondorioz, izen zenbakarria buru duten determinatzaile sintagma singularrak dira eragozpen gehien erakusten dutenak interpretapen ezespezifikoa egiterakoan, hauetan gehiengoak (sei pertsonetatik lauk) irakurketa hau baztertzen baitu.

Azpimargarria da, berriro ere, izen zenbakarria buru duten determinatzaile singularrak izatea interpretapen ezespezifikoa onartzeko arazo gehien planteatzen dituztenak. Bestalde, fokalizatutako posizioa eta hitz hurrenkera neutroko absolutibodun posizioa erkatuko bagenitu, ikusiko genuke irakurketa ezespezifikoa errazago lortzen dela hitz hurrenkera neutroa dugunean.

2.1.3.3. Topikalizatutako objektuak

Topikalizatutako posizioan agertzen diren determinatzaile sintagmak onargarriak dira interpretapen espezifikoarekin¹³:

- (51) *Liburua*, emakumeak erosi du
- (52) *Liburuak*, emakumeak erosi ditu
- (53) *Liburua*, atera da
- (54) *Liburuak*, atera dira
- (55) *Azukrea*, emakumeak erosi du
- (56) *Ardoa*, heldu da

Espezifikotasunari dagokionez, topikoak diren objektuen barnean ez dago alderik izen singular eta plural, izen zenbakarri eta zenbakaitzen artean, ez eta predikatu motaren arabera ere. Esan dugunez, denak dira onargarriak.

Ezespezifikoki interpretatzen diren determinatzaile sintagmekin egoera bestelakoa da. Izen sintagmaren burua izen zenbakaitza denean bereizketa bat gertatzen da predikatu motaren arabera. Hau da, predikatu diadikoekin izen zenbakaitza buru duten determinatzaile sintagmak ezin dira espezifikoki bezala onartzen. Predikatua monadikoa denean, berriz, izen zenbakaitza buru duen determinatzaile sintagma onargarria gertatzen zaie interpretapen espezifikoarekin sei pertsonetatik biri¹⁴. Beraz, onargarritasun maila ezberdina da predikatu motaren arabera izena zenbakaitza denean eta irakurketa espezifikoa dagoenean. Hauek dira honen guztiaren adibideak:

- | | |
|--|-------------------------|
| (57) <i>Azukrea</i> , emakumeak erosi du | *(0/6 proportzioarekin) |
| (58) <i>Ura</i> , (balkoitik) sartu da | *(2/4 proportzioarekin) |

Interpretapen espezifikoarekin jarraituz, ikus dezagun orain topikalizatuta agertzen diren eta izen zenbakarria buru duten determinatzaile sintagmekin zer gertatzen den. Kasu hauetan antzeko datuak aurkitzen ditugu, ñabardura batzuk salbu. Batetik, predikatua diadikoa denean, objektu zuzena singularrean agertzen bada, ezin du interpretapen espezifikoa jaso (cf.

¹³ Kasu guztien artean salbuespen bakarra dago. Salbuespen hau predikatu diadikoaren objektua den izen zenbakarri pluralari dagokio, hiztun batek ez baitu onartzen.

¹⁴ Emaidza guztiak konparatuko bagenitu, ikusiko genuke izen zenbakaitza ardatz duten objektu iragangaitzak espezifikoki interpretatzen direnean onargarriak direla bai fokalizatutako posizioan baita hitz hurrenkera neutroko objektu posizioan ere, baina kasu honetan, hots,

(59)). Era berean, predikatu diadikoaren objektua pluralean agertzen denean (cf. (60)), interpretapen ez-espezifikoa ez da onartzen, nahiz eta kasu honetan salbuespen bat dagoen, hau da, sei pertsonetatik batek onartzen du interpretapen hau.

- | | | |
|------|--------------------------------|-------------------------|
| (59) | Liburua, emakumeak erosi du | *(0/6 proportzioarekin) |
| (60) | Liburuak, emakumeak erosi ditu | *(1/5 proportzioarekin) |

Predikatua monadikoa denean, subjektua singularra bada irakurketa ez-espezifikoa ez da onargarria, nahiz eta pertsona bakar batek onartzen duen (cf. (61)). Predikatu monadikoaren subjektua plurala denean, aldiz, onargarritasun maila igo egiten da eta sei pertsonetatik hiruk onartzen dute irakurketa ez-espezifikoa eta beste hiruk baztertzen (cf. (62)).

- | | | |
|------|------------------------------|-------------------------|
| (61) | <i>Liburua</i> , atera da | *(1/5 proportzioarekin) |
| (62) | <i>Liburuak</i> , atera dira | %(3/3 proportzioarekin) |

Laburbilduz: topikoak diren objektuekin ez dugu aurreko kasuekin ikusten genuen homogeneitatea aurkitzen. Hala ere, eredu nagusiak hurrengoak izango lirateke: interpretapen espezifikoa oro har onargarri gertatzen da. Interpretapen ez-espezifikoa, berriz, ez da onargarria izaten, salbuespenak badiren arren. *Grosso modo*, esan liteke irakurketa espezifikoa bai, baina ez-espezifikoa ez dela topikalizatutako objektuekin gertatzen; eta onartzen den neurri marjinalan, batez ere singularrak ez diren izen sintagmekin lortzen da, hots, plural eta zenbakaitzekin (cf. (58), (62)).

2.1.3.4. Emitza orokorrak

Hitz hurrenkera neutroko objektuei dagokienez, hiztunek irakurketa espezifikoa onartzen dute. Ez-espezifikoak direnean ere onartzeko joera handia dago, nahiz eta predikatu diadikoen objektua singularra denean salbuespenak egon. Izen zenbakaitzekin, pluralekin bezala, onargarritasuna erabatekoa da.

Fokalizatutako objektuak espezifiko bezala interpretatzen direnean onargarriak dira kasu guztietan. Interpretapen ez-espezifikoa jasotzen dutenean banaketa bat gertatzen da. Alde batetik, fokalizatutako determinatzaile sintagma singularrak dauzkagu --predikatu diadikoen objektu zuzenak eta predikatu monadikoen subjektuak izan daitezkeenak--, eta bestetik, fokalizatutako determinatzaile sintagma pluralak eta izen zenbakaitzak buru dituzten

topikalizatutako posizioan interpretapen hau errefusatzeko joera dago. Honek esan nahiko luke topiko ez-espezifikoak oro har ez direla onargarriak zenbakaitzak direnean.

determinatzaile sintagmak. Lehenengoak ez dira posizio honetan onargarriak interpretapen ezespezifikoa jasotzen dutenean, ez behintzat kontsultatutako hiztunen gehiengoarentzat. Bigarrenak, ordea, onartu egiten dira orokorrean. Izen zenbakarria buru duen determinatzaile sintagma pluralen kasuan salbuespenen bat aurkitzen dugu; izen zenbakaitzak buru dituzten determinatzaile sintagmen kasuan, berriz, adostasun osoz onartzen dira ezespezifikoko bezala.

Irakurketa espezifikoa onargarria da topikalizaturiko posizioan. Era berean onartzen dira izen zenbakarriak zein zenbakaitzak. Interpretapen ezespezifikoa ez da onargarri gertatzen posizio honetan. Hala eta guztiz ere, gorago esan dugunez, badira salbuespenak¹⁵. Kasu hauetan predikatu monadiko baten subjektu bat daukagu. Batean izen zenbakarria pluralean agertzen da eta bestean izena zenbakaitza da.

Laburbilduz esan dezakegu irakurketa ezespezifikoa dela onargarritasun maila apalena erakusten duena aztertutako hiru posizioetan. Oro har, izen zenbakarria buru duten determinatzaile sintagma singularrak dira interpretapen ezespezifikoa dagoenean baztertzeko joera aurkezten dutenak. Topikalizaturiko objektuen kasuan joera nagusia da ez onartzea inolako objektu ezespezifikorik, ez izena zenbakarria denean ezta zenbakaitza denean ere.

2.2. Teoriazko azalpenak

Lehenengo atalean euskal artikuluari buruz hainbat euskalarik esan dutenari birpasa bat eman diot. Bertan azpimarratu dudanez, euskal determinatzaileari inoiz balio semantikorik atxiki bazaio ia beti espezifikoa izan da. Lan honetan, berriz, determinatzaileak balio ezespezifikoa ere izan ahal duela erakustea daukat helburu eta erabilitako galdetegiak hau frogatzera etorri da. Oraingo atal honetan artikulua anbiguotasunei azalpen bat eman diezaieketen azterbideak aurkeztuko ditut. Teoria hauekin batera, hizkuntzen arteko konparaketaz baliatuko naiz, horrela euskal determinatzaile sintagmaren jokaera sintaktikoaren azterketa sakon bat burutu ahal izateko.

Hurrengo ataletan hiru puntu nagusi bereiziko ditut. Lehenengoa hitz hurrenkera neutroko objektu posizioa betetzen duten sintagmei dagokie; bigarrena foko posizioa betetzen duten sintagmei eta, hirugarrena, topikalizatuta agertzen diren sintagmei. Hiru puntu hauek kontuan izanik, lehenengo azpiatalean izen zenbakarri pluralak eta izen zenbakaitzak buru dituzten determinatzaile sintagmak aztertuko ditut hitz hurrenkera neutroko objektu zein foko posizioan agertzen direnean. Bigarrenik, izen zenbakarriak ardatz dituzten determinatzaile

¹⁵ Kasu aipagarrienak (60) eta (62) ditugu.

sintagma singularrei ekingo diet posizio berdinak aintzat hartuta. Azkenik, topikalizaturiko kasuek hirugarren azpiatala osatuko dute.

2.2.1. Pluralak eta masa izenak

Lanean zehar behin baino gehiagotan esan dudanez euskaraz $-a(k)$ determinatzailea gehienetan espezifikoa bezala hartu izan da. Beste hizkuntzekin konparatuta, beste hizkuntzetako determinatzaile definituari eta euskarazko artikuluari interpretazio espezifikoa dagokie, hau da, beste hizkuntzetan determinatzaile definitua aurkitzen dugunean, euskaraz balio espezifikoa daukan artikulua bidez ordezkatzeko dugu. Ikus hurrengo adibideok:

- (63) a. Me han robado *el coche*
 b. *Kotxea* lapurtu didate
- (64) a. Has perdido *las llaves*
 b. *Giltzak* galdu dituzu

Goiko (63a) eta (64a) perpausetan determinatzaile definitua daukagu; (63b) eta (64b) adibideetan euskarazko balioak ditugu eta hauek $-a(k)$ artikulua agertzen da.

Euskaraz, ostera, artikulua bidez balio ez-espezifikoa ere izan dezakegula esan dute. Balio ez-espezifikoa islatzeko determinatzaile berbera erabiltzen dugu euskaraz. Gazteleraz, esate baterako, ez da hau gertatzen eta interpretapen hau egon dadin bi aukera daude: edo artikulurik ez jartzea edo artikulua indefinitua erabiltzea. Hau ikus daiteke hurrengo adibideetan:

- (65) a. Jonek azkenik etxea erosi du
 b'. Juan por fin se ha comprado casa
 b". Juan por fin se ha comprado una casa
- (66) a. Mirenek goxokiak erosi ditu umeentzat
 b'. Miren ha comprado caramelos para los niños
 b". Miren ha comprado unos caramelos para los niños
- (67) a. Atzoko afarian ura edan nuen
 b'. En la cena de ayer bebí agua¹⁶

¹⁶ (67a) adibidea ezin interpreta daiteke ondoren ematen dudan moduan, *ur* izena zenbakarritzat hartzen ez bada, hots ur botila bati edo erreferentzia egiten ez badiogu:

i. #En la cena de ayer bebí un agua

Aurreko adibideetan argi ikusten da euskaraz interpretapen ezespezifikoa lortzeko erabiltzen dugun artikulua irakurketa espezifikoa izateko erabiltzen dugun berbera daukagula. Gazteleraz, berriz, artikulurik eza edota artikulua indefinitua erabili behar dira euskararen baliokideak ematerakoan.

Goiko (63) - (67) adibideei erreparatzen badiegu, orokorrean esan dezakegu euskaraz kasu guztietan ez bada, gehienetan $-a(k)$ artikulua agertzen dela. Badira salbuespenak, hala ere. Salbuespen hauek erabilera predikatiboei dagozkie (ikus berriro 4. oharra). Lan honetan aztertzen ari naizen sintagmak argumentu posizioan agertzen dira eta posizio honetan, itxura batean behintzat, sintagma guztiek determinatzailea agertu behar dute. Oraingo kezka da zehaztea zein kasutan lortzen duten determinatzaile sintagma hauek irakurketa ezespezifikoa.

Longobardi (1994) lanean esaten denez, joera unibertsal bat da argumentu posizioan determinatzailearik gabe ager daitezkeen izen motak izen pluralak eta masa izenak izatea. Euskaraz ez daukagu argumentu posizioan determinatzailearik gabeko sintagmarik--zenbatzaileak alde batera utzita--, baina bai interpretapen ezespezifikoa duten determinatzaile sintagmak eta itxuraz *izen biluziek*¹⁷ bezala jokatzeko dutenak. Honen adibideak lan honetan erabilitako galdetegian aurkitzen dira. Hurrengo zerrendan galdetegian agertzen diren izen zenbakarriak buru dituzten determinatzaile sintagma pluralak (68) eta izen zenbakaitzak ardatz dituzten determinatzaile sintagmak (69) agertzen dira:

- (68) a. LIBURUAK erosi ditu emakumeak
 b. LIBURUAK heldu dira
 c. Emakumeak liburuak erosi ditu
 d. Liburuak heldu dira
- (69) a. AZUKREA erosi du emakumeak
 b. URA erori da
 c. Emakumeak txanpaina erosi du
 d. Ura sartu da erlojuan

Honen antzeko kasuak hurrengo 2.2.2. puntuan aztertuko ditut.

¹⁷ Termino hau ingelesezko *bare nouns* adierazpenaren sinonimotzat hartu dut. Honen bidez determinatzailearik agertzen ez duten izen sintagmei erreferentzia egiten diet.

¹⁹ (68a) eta (68b) kasuetan galdetutakoen artean hiztun bakarra dago interpretapen ezespezifikoak onartzen ez dituenak.

Aurreko (68a), (68b), (69a) eta (69b) adibideak fokalizatutako objektu posizioan agertzen direnei dagozkie eta besteak hitz hurrenkera neutroko objektu posizioan agertzen direnei. Perpaus hauek guztiak onargarriak dira galdetutako hiztunentzat interpretapen ezespezifikoarekin¹⁸, hau da, gaztelerazko izen biluziak buru lituzketen determinatzaile sintagmek bezala jokatzan dute eta era berean interpretapen berdina jasotzen dute.

Honek erakusten digu euskaraz ere badagoela plural eta masa izenen artean parekotasun bat, beste hizkuntzetan gertatzen den legez. Ikus dezagun orain beste hizkuntzetako plural eta masa izenatarako proposatutako teoriak zer esaten duten eta ea euskararen kasuan aplikagarriak diren.

Esan dudan bezala, Longobardi (1994) lanean italieraz interpretapen existentziala edo ezespezifikoa aurkeztu ahal duten izen biluzien artean masa adierazten duten izen singularrak eta izen zenbakarri pluralak daude¹⁹. Berak aitortzen duenez, badira zenbait izen zenbakarri singular interpretapen hau izan dezaketenak, baina kasu hauek oso bereziak direla eta hizkuntzaz hizkuntza bakanagoak direla argudiatzen du. Esaterako, interpretapen ezespezifikoa izan dezakete ezeztapenaren menpean agertzen diren izen zenbakarri singular batzuek. Azken hauek, Longobardiren hitzetan, ez dago argi benetako argumentutzat har daitezkeen ala ez; beharbada, adierazpen idiomatiko bezala ulertu behar dira (cf. Longobardi, 1994:613).

Izen biluziek daukaten interpretapena existentzialki kuantifikatutako izen sintagma baten antzekoa izango litzateke Longobardirentzat. Hori dela eta, izen biluziak partitiboa aurkezten duten kasuekin erkatzen ditu. Are gehiago, berak erakusten duen bezalaxe, partitiboak eta izen mota hauek harreman estua izan dezakete partitiboa agertzen duten sintagmen ardatzak ere izen zenbakaitz eta zenbakarri plurak direlako²⁰. Hurrengo adibidean Longobardik berak erabilitako perpausak agertzen dira. Honetan, italierazko partitiboak izan ditzakeen erabilpenen artean bat islatu dugu, irakurketa generikoa adieraztearena, hain zuzen ere:

¹⁹ Izen bereziak eta izenordainak ere talde honetan sartzen ditu Longobardik, baina hauek lan honen helburuetatik at daudenez, ez diet arreta berezirik ipiniko.

²⁰ Irakurketa ezespezifikoa eta partitiboaren arteko bereizketa izen biluziei dagokienez hurrengo adibidearen bidez azaltzen du:

- i) Ogni giorno mangia patate (Egunero patatak jaten ditu)
 - ii) Ogni giorno mangia alcune/delle patate (Egunero patatak jaten ditu)
- (Longobardi, 1994: 615)

Lehenengo adibidean plural biluzia daukagu. Honen esanahia hurrengo litzateke: patatak jaten dituenak gutxienez bat jan behar du horrelako perpaus bat esan ahal izateko. Bigarren kasuan, berriz, partitiboaren bidez adierazten dena zera da: patatak jaten dituenak patata bat baino gehiago jan behar dituela horrelako perpausa erabiltzeko.

- (70) a. Dei cani grossi creano sempre questi problemi
 Art. Parti. txakur handi sortzen dituzte beti hauek arazo
 Txakur handiek beti sortzen dituzte arazo hauek
- b. Un cane grosso crea sempre questi problemi
 bat txakur handi sortzen ditu beti hauek arazo
 Txakur handi batek beti sortzen ditu arazo hauek (Longobardi, 1994:614)
- c. *(los) perros grandes siempre crean estos problemas
 Txakur handiek beti sortzen dituzte arazo hauek

Aurreko (70a) adibidean artikuluko partitiboa agertzen da artikuluko indefinitu singularraren balioarekin. (70b) adibidean ikusten den bezalaxe *un* indefinituaren bidez irakurketa generikoak lor daitezke. Nolabait, (70a) adibidean italierazko partitiboak *un* indefinituaren plurala adieraziko luke, hots, *unos* bezalako zerbait. Hau, hala ere, ez da hizkuntza erromaniko guztietan gertatzen. Gogora beza irakurleak gaztelaraz ezinezkoa dela interpretapen hau, hots, irakurketa generikoa *unos* indefinitu pluralarekin. Honetarako, artikuluko definitu plurala erabiltzen da (70c) adibidean legez. Euskarazko itzulpenetan ikus daitekeen moduan, ez dago artikuluko partitiborik erabiltzerik eta gauza bera adierazteko artikulua erabili behar da.

Longobardi (1994) lanean honako unibertsa dagoela proposatzen da: determinatzaile gunea hutsik egon daiteke baldintza hauek betetzen direnean:

- (71) a. izen biluziak pluraletara eta masa izenetara murriztuta daude
 b. interpretapen existentziala, hots, ez-espezifikoa jasotzen dute
 c. gobernu lexikoa mantendu behar da

Baldintza hauek argi uzten dute orokorrean izen pluralek eta masa izenek talde natural bat bezala jokatzen dutela eta hauek lotuta datozela interpretapen ez-espezifikoarekin. Izan ere, (a) eta (b) baldintzak bata bestearen ondorio zuzena dira, hau da, masa izen bat existentzialki kuantifikatuz gero, masa horren zati bati egin diezaiokegu erreferentzia; gauza bera gertatzen da pluralekin, hots, plurala osatzen duten banakoen multzo bakar bati egin dakioke erreferentzia kuantifikazio existentziala erabiltzen denean. Aldiz, singularraren kasuan ez dago partiketarik egiterik eta, beraz, existentzialki kuantifikatuko bagenu, singularra osatzen duen unitate bakarrari egingo genioke erreferentzia, eta hau ez da, hain zuzen ere, kuantifikazio existentzialaren emaitza. Honek guztiak erakusten du interpretapen existentziala--hots, determinatzailearik eza-- dela pluraletara eta masa izenetara mugatzeko arrazoia.


Baldintza unibertsal hauei dagokienez, hizkuntza guztiek berdin jokatuko lukete, hau da, baldintza hauek berdin aplikatuko lirateke hizkuntzaz hizkuntza. Hala ere, izen biluziei dagokienez, ezberdintasunak aurkitu ahal ditugu hizkuntzen artean, adibidez, hizkuntza erromantzeen eta ingelesaren artean, baina ezberdintasun hauek ez dira sortzen baldintza hauek modu ezberdin batean aplikatzen direlako batean edo bestean, baizik eta ingelesez Forma Logikora bidean zilegi den izenaren mugimendu 'ezkutua' ere posible delako izen biluziekin (ikus Longobardi (1994) zehaztasun gehiagorako).

Euskararen kasuari begiratuko bagenio, ikusiko genuke orokorrean ezin dugula, argumentu posizioan behintzat, artikulurik gabeko izen sintagmarik izan, baina bai, aldiz, eduki ditzakegu interpretapen ezespezifikoa jasotzen duten determinatzaile sintagmak (cf. (65)-(67) adibideak eta galdetegian erabilitako (68) eta (69) adibideak). Puntu honi dagokionez, itxura batean behintzat, euskaraz interpretapen ezespezifikoa izan dezaketen determinatzaile sintagmen banaketa beste hizkuntzetako zero determinatzaileen antzeko banaketa izango genuke, nahiz eta euskaraz, erromantzez eta beste hizkuntza batzuetan ez bezala, determinatzailea agerian dagoen.


Longobardi (2000) lanean proposatzen denez, kasu hauetan, hots, interpretapen ezespezifikoa jasotzen duten izen biluzien kasuetan, determinatzailearen gunea hutsik egongo da. Proposamen hau kontuan izanik, Artiagoitia (2002) lanaren arabera euskarazko artikulua determinatzaile gunea baino beheargoko posizio batean agertzen da, hau da, Artiagoitiarentzat euskal determinatzailea ez da beti determinatzaileari dagokion lekuan azaltzen eta izenaren eta determinatzaile guneen arteko posizio batean kokatzen du, numeroaren adierazgarria delarik. Artikulua posizio honetan agertuko da determinatzaile sintagmaren interpretapena ezespezifikoa denean, eta hau bakarrik izango da zilegi gobernatutako posizioetan.

Argumentu guztiek numeroa adierazten dute, hots, argumentuak singularrak ala pluralak dira. Euskaraz numeroa ez da izenean markatzen, gaztelera edota italiera bezala, hau da, euskaraz izenak ez dira singular edo pluralak, baizik eta numeroaz hitz egiten dugunean determinatzaile sintagma osoari buruz ari gara. Numeroa, beraz, beti markatu behar da, sintagmaren interpretapena edozein delarik. Izenari dagokion posizioan ezin da markatu, euskaraz izenak ez direlako ez singularrak, ez pluralak; eta determinatzaile gunean ezin da beti markatu, batzuetan hau hutsik dagoelako. Hau dela eta, izenaren eta determinatzailearen arteko gune bat proposatzen du Artiagoitia (2002) lanak Longobardi (2000) lanari jarraituz eta Contreras (1996) bezalako proposamena kontuan hartuta. Tarteko gune honi numero sintagma deritza Artiagoitiak. Honek zehazten duenez sintagma honen burua den numeroa ez da morfema

aske bat bezala islatzen. Hau guztia aintzat harturik, ikus ditzagun Artiagoitia (2002) lanean proposatutako deribazio sintaktikoak:



<interpretapen ezespezifikorako>



<interpretapen espezifikorako>

Diagrama hauetan ikusten dugu badagoela modu bat interpretapen espezifikoa --(73) adibideetan agertzen dena-- eta ezespezifikoa --(72) adibidean ikus daitekeena-- bereizteko. Interpretapen espezifikuari dagozkion itxuraketa sintaktikoetan ikus daiteke determinatzailearen gunea beteta dagoela determinatzailearekin, cf (73a) eta (73a'). Determinatzailearen gune honetan determinatzaile sintagmaren ezaugarri erreferentzialak erkatuko lirateke eta interpretapen espezifikoa lortuko genuke. Determinatzaile gunera heldu baino lehenago numeroari dagozkion tasunak erkatuko lirateke horrela singularitasuna edo pluralitasuna bereganatuz. Interpretapen ezespezifikoaren kasuan, berriz, artikulua ez litzateke determinatzailearen gunera igoko eta gune hau hutsik geratuko litzateke interpretapen existentziala sortuz. Beraz, Longobardik aurreikusi bezala, lexikoki gobernatutako posizioetara mugatuko litzateke²¹. Determinatzailea numeroari dagokion gunean geratuko litzateke, horrela numeroaren tasunak ere bereganatzen dituela (cf. (72a) eta (72a')).

²¹ Gauza bera erakustera datoz Laka (1993: 2.3. atala) lanaren hurrengo adibideok:

- i. Zuek sagarrak jan dituzue
- ii. Kamioiak etorri dira
- iii. Gizonek negar egin dute

Lehenengo bi kasuetan (i eta ii) irakurketa espezifikoa nahiz ezespezifikoa dira posible, objektu iragankorra den *sagarrak* determinatzaile sintagma eta subjektu iragangaitza den *kamioiak* determinatzaile sintagma, biak aditzaren osagarri posizioan, hots, gobernatutako posizioan agertzen direlako. Hirugarren kasuan, berriz, subjektu iragankorra den *gizonek* determinatzaile

Longobardik proposatutako plural eta masa izenentzako analisisia eta Artiagoitiak defendatutako hipotesia aintzat hartuko dira lan honetan euskararen datuen berri emateko, plural eta masa izenei dagokienean, espreski.

Laburbilduz, esan daiteke orain arte izen zenbakarria buru duten determinatzaile sintagma pluralak eta izen zenbakaitza ardatz daukaten determinatzaile sintagma singularrek talde bat osatzen dutela. Hauek ezaugarri komunak dituzte interpretapenari dagokionez, hau da, interpretapen ez-espezifikoa jasotzen dute determinatzaile gabe agertzen direnean. Euskararen kasuan interpretapen hau izan dezaketen determinatzaile sintagma determinatzailea agertzen dutela erakutsi dut, baina Longobardi (2000) edo Artiagoitia (2002) proposamenen bitartez interpretapen hau eta espezifikoa bereiziko lirake, determinatzailearen gunea, interpretazioaren arabera, hutsik --ez-espezifikoaren kasuan-- edo beteta --espezifikoarenean-- egongo baita. Teoria hauek ederto erakusten dutenez, interpretapen ez-espezifikoa ez da zilegi izango determinatzaile sintagma aditzak gobernatzen duen posizio batean agertzen ez denean. Hau erakustera datoz hurrengo adibideok:

- (74) a. gizonak deitu dute
 b. emakumeek dantza egin dute
 c. gizonak gerraz mintzatu dira
 d. jokalaria epailea jotzen saiatu dira

Aurreko adibide guztietan lortzen dugun interpretapena espezifikoa da. (74a) eta (74b) adibideetan subjektua ergatibo kasuarekin markaturik dago eta horregatik *-a(k)* agertu beharrean *-ek* morfema azaltzen da²². (74c) eta (74d) adibideetan subjektuak absolutiboz markatuta daude eta hauetan ere irakurketa espezifikoa baino ez da posible²³. Kasu hauetan guztietan subjektua kanpo argumentu bezala sortzen da eta, beraz, hortik eratortzen da interpretapen ez-espezifikoa

sintagma gobernutik kanpo dago eta horregatik (iii) perpausa ezgramatikala da *gizonak* determinatzaile sintagmaren interpretapen ez-espezifikoarekin.

²² Azken finean, ergatibo markaren azpian determinatzaileari dagokion *-ak* morfema gehi ergatiboari dagokion *-(e)k* marka ditugu *-ek* forman bilduta.

²³ Contreas (1996) lanaren arabera, egoera mailako predikatu batekin irakurketa ez-espezifikoa posible litzateke subjektua fokalizatuta balego:

- i. ?GENte invadió el estadio
 ii. ?caFE saturó el mercado (Contreras, 1996:145)

Goiko (74) adibideetan daukagun hitz hurrenkera, aldiz, (i) eta (ii) adibideetan ez bezala, neutroa da eta kasu hauetan ez dago interpretapen ez-espezifikoa lortzerik. Euskarazko kasuan (iii) bezalako kasuak aztertu beharko lirake:

- iii. GIZONAK mintzatu dira gerraz

Arazo honetaz etorkizunean gehiago ikertu beharko da.

onargarria ez izatea. Hauxe da, hain zuzen ere, Longobardi (2000) eta Artiagoitia (2002) teoriek aurruposatzen duten emaitza.

Plural eta masa izenekin gertatzen dena aztertu dugula, azaldu gabe geratzen da oraindik interpretapen ez-espezifikoa eduki ahal duten determinatzaile sintagma singularrak zein testuingurutan ager daitezkeen. Hauek hurrengo azpiatalean aztertuko dira.

2.2.2. *Singularrak*

Singularrak diren determinatzaile sintagma biluziak plural eta masa izenetatik bereizi behar ditugu. Azken hauek determinatzaile posizioa hutsik izanik argumentu posizioetan agertzeko arazorik ez daukatela erakutsi dut aurreko azpiatalean, gobernu lexikoaren baldintza betetzen bada. Orokorrean, esan daiteke euskaraz artikulua ageri denean ere beste hizkuntzetako determinatzaile sintagma biluzien pareko sintagmak izan ditzakegula, hauek beti interpretapen ez-espezifikoa jasoko dutela. Singularren kasuan, berriz, murriztapen gehiago aurkitzen ditugu. Hizkuntza erromantzeetan, esate baterako, singular biluziak oso testuinguru gutxitan agertzen dira eta oro har kontestu hauek argumentalak ez diren posizioetara murriztuta egoten dira, nahiz eta aurrerago ikusiko dugunez salbuespenak egon daitezkeen. Hurrengo zerrendan galdetegian aurkitzen ditugun datuak azaltzen dira:

(75)	a. Emakumeak liburua erosi du	✓ (5/1 proportzioarekin)
	b. Liburua heldu da	? ✓ (4/2 proportzioarekin)
	c. LIBURUA erosi du emakumeak	?* (2/4 proportzioarekin)
	d. LIBURUA heldu da	?* (2/4 proportzioarekin)

Aurreko zerrendan erabilitako galdetegian izen zenbakarria ardatz daukaten determinatzaile sintagma singularrak agertzen dira, ez-espezifikoki interpreta daitezkeenak galdetutako hiztunen arabera. Erabateko onargarritasuna lortzen ez den arren, joera nagusia da hitz hurrenkera neutroko kasuetan, bederen, irakurketa ez-espezifikoa onartzea. Lehenengo kasuan, hau da, (76a) adibidearen kasuan pertsona batek bakarrik baztertzen du irakurketa ez-espezifikoa. (76b) adibidean bi dira irakurketa hau onartzen ez dutenak. Azken bi kasuetan, hots, (76c) eta (76d) kasuetan, onargarritasun maila gutxitzen da eta sei pertsonetatik bakarrik bik onartzen dute interpretapen existentziala. Bi kasu hauek fokalizatutako objektuei dagozkie. Kasu hauetan interpretapen ez-espezifikoa ez onartzeko arrazoia lotuta egon daiteke fokalizatuta dagoen sintagmaren eta aditzaren arteko loturarekin, hau da, fokoa baldin badago osagarria den determinatzaile sintagma singularra eta aditza nolabait banatuta agertuko dira deribazio sintaktikoan eta azpiatal honetan azalduko dudanez, hau Bosquek proposatutako

inkorporazioaren analisiaren kontra joango litzateke. Fokalizatutako kasu hauek gramatikal bihurtu ahal izateko fokalizatutako sintagma nolabait aditzari inkorporatu beharko litzaioke, baina azaldu dugun bezala, fokoa izatea eragozpen bat izango litzateke inkorporazioa gertatzeko. Hala ere, Bosquek kasu hauetarako irtenbide bat egon litekeela esaten du: fokalizatutako kasu hauetan inkorporazioa forma logikoan gerta liteke bigarren mailako predikatuen inkorporazioaren kasuan gertatzen den bezalaxe (ikus Bosque 1996:100).

Aurreko bi kasuak, hitz hurrenkera neutroan agertzen direnak, hots, (76a) eta (76b), azaldu gabe geratuko lirateke eta hau gerta ez dadin, ikus dezagun beste hizkuntzetako singular biluzientzako proposatu izan diren hipotesiak eta hauek aplikagarriak diren euskararen kasuan.

Gaztelerari buruzko azalpen garrantzitsuenetakoa Bosque (1996) lanean dugu. Bosqueren arabera singularrak diren izenak ezin dira, oro har, argumentu bezala agertu determinatzailezik ez badaramate. Hala ere, singular biluziak ere egon daitezke zenbait kasutan. Honelako kasuak gramatikalak direnean, Bosquek inkorporazioan oinarritutako analisi bat proposatzen du; bestela, determinatzailean artikulatu indefinitu bezala uler daitezkeen zero markaren bidea ere badagoela argudiatzen du.

Bosquek lan honetan gramatikalak izan daitezkeen kasuen deskribapen bat eskaintzen du. Hauen artean aditz intentsionalekin agertzen diren objektuak kokatzen ditu. Aditz intentsionalek ez dute barne argumentuaren existentzia auresuposatzen eta berauek orokorrean berez ezespezifikoak diren objektuak aukeratzen dituzte barne argumentu bezala:

- (76) a. Estoy [buscando / *pintando] piso
 b. Juan [necesitaba / *despedía] ayudante
 c. Ha [pedido / *guardado] coche nuevo

Gaztelerazko adibide hauetan ikusten da aditz intentsionalekin singular biluziak posible direla interpretapen ezespezifiko batekin. Kasu hauek azaltzeko Bosquek hurrengo analisi sintaktikora jotzen du: aurreko perpausek baliogabeko edo hutsa den determinatzaile bat daukate, hauen tasunak ezespezifikoak direlarik, hau da, *un* edo *bat* determinatzaile indefinituaren baliokidea izango litzatekeen aldagai huts baten antzekoa izango lukete determinatzaile gisa.


Euskaraz antzeko jokabidea daukagula frogatzen dute (78) adibideko perpausek. Gaztelerarekin konparatuz gero, euskaraz determinatzaile sintagma bat izango dugu gazteleraz izen sintagma soil bat daukagun lekuan:

- (78) a'. Pisua [bilatzen / *margotzen²⁴] ari naiz
 b'. Jonek laguntzailea [behar zuen / *bota zuen]
 c'. Kotxe berria [eskatu / *gorde] du

Gazteleraz gertatzen den bezala, euskarazko perpausetan determinatzaile hutsa edo *bat* indefinituaren baliokidea izan daitekeen interpretapena egin daiteke, hau da, aurreko perpausak bina interpretapen izan ditzakete: determinatzaile hutsari dagokiona, hots, singular biluziaren tankerakoa edo indefinituaren modukoa, hurrengo adibidean islatzen duguna:

- (79) a". Pisu bat [bilatzen / margotzen²⁵] ari naiz
 b". Jonek laguntzaile bat [behar zuen / bota zuen]
 c". Kotxe berri bat [eskatu / gorde] du

Euskaraz, gazteleraz ez bezala, determinatzailea agertzen da kasu guztietan, baina hau azal daiteke numeroa markatu behar dugulako. Gazteleraz, berriz, numeroa izenean bertan markatzen denez, ez da nahitaezkoa determinatzailea agertzea. Hau kontuan izanik, eta aurreko azpiatalean aztertutako Artiagoitiaren teoria aintzat hartuta, honako eskema baten bidez azalduko genuke euskararen kasuan ikusten duguna:



Euskarazko kasu honetan, determinatzailea \emptyset izatea aditzaren eskazikun lexiko bezala ulertu behar da.

Goazen orain Bosquek gramatikalak diren beste kasuen artean estereotipotzat jotzen dituen egiturak ikustera. Hauen artean honako hauek aipatzen ditu:

- (81) a. Llevaba sombrero
 b. Vistió pantalón de cuero
 c. Tenía casa en la montaña

²⁴ Ezgramatikalak izango dira adibide hauek irakurketa ez-espezifikoa egiten dugunean.

²⁵ *Bat* indefinituaren interpretapena lortzen dugunean, intentsionalak ez diren aditzekin ere perpaus gramatikalak lortzen ditugu, betiere interpretapen ez-espezifikoa gordez.

Bosqueren aburuz, honelako perpausen bidez ez dago nahitaez objektu ezespezifikoei erreferentzia egin beharrik, hau da, *llevaba sombrero* perpausak ez du esan nahi *llevaba algún sombrero*. Izan ere, Sánchez de Zavalaren lan batean oinarrituz, Bosquek argudiatzen du honelako perpausak unizitatearekin lotutako interpretapen bat dakartela. Aldi berean, objektu hauek ez dira generikoak izan behar, hots, objektu bati erreferentzia egiten diote objektu hau aipatu gabe geratzen den arren.

Euskaraz, berriro ere, gazteleraren antzeko portaera ikusten dugu. Egitura mota hauetan izen zenbakarria buru duten determinatzaile sintagma singularrak ager daitezke, beti ere determinatzailea agerian dutela, baina kasu gehienetan interpretapena ezespezifikoa izaten da:

- (82) a'. Txapela zeraman
 b'. Larruzko berokia jantzi zuen
 c'. Etxea zeukan mendian

Aurreko (78) adibidean ikusten genuenez, oraingoan ere determinatzailea agertzen zaigu gaztelerazko adibideetatik bereiztuaz. Hala ere, badirudi, Bosquek gazteleraz singular biluziak ager daitezkeeneko testuingurutzat jotzen dituenak, euskaraz ere interpretapen ezespezifikoa duten determinatzaile sintagma singularrak ditugula, nahiz eta azalpenak ezin duen berdina izan, euskaraz artikulua dagoelako.

Aurreko egituren antzera jokatzeko duten adibideak ere aipatzen ditu Bosquek, hau da, estereotipotzat jo daitezke ere (83) bezalako egiturak:

- (83) a. Juan ha comprado automóvil

Bosqueren arabera, honelako perpausak bakarrik erabil daitezke kotxea lehenengo aldiz erosten denean. Oro har, estereotipotzat jotzen dituen egitura hauetan singular biluziak ezespezifikoki interpretatzeko aukera izatea pragmatikoki azal daitekeen zerbait dela argudiatzen du Bosquek, alegia, egoera eta erabilera sozio-kulturalek zeresan handia izango dute honelako egiturak estereotipo bihurtzerakoan. Euskaraz badira honelakoak:

- (84) a'. Jonek kotxea erosi du

Euskarazko adibidean ere estereotipotzat jo daitekeen egitura bat daukagu. Determinatzaile sintagma singularrak irakurketa existentziala izango luke, gazteleraz bezalaxe.

Beste alde batetik, estereotipatutako egituren barruan edukitze banaezina (gaztelarazko *posesión inalienable*) motakoak ditugu. Egitura hauen bidez banako baten ezaugarrien berri ematen dugu eta beraz banako horrengan tipikoa den zerbait eta horrengandik banaezina den zerbait adierazten da. Bosqueren arabera, honelako egiturek kalifikatzaileak diren adjektiboak baztertzen dituzte eta erlazionalak onartzen:

(85) Llevaba sombrero [cordobés /*horrible]

Euskaraz, puntu honi dagokionez behintzat, gauzak ezberdinak direla erakusten dute hurrengo adibideok:

- (86) a. Txapel [kordobesa/ itsusia] zeraman
 b. Mikelek gerriko [luzea / euskalduna] darama
 c. Luma [arina / ingelesa] erabiltzen dut
 d. Kotxe [garestia / japoniarra] erosi zuten
 e. Ordenagailu [berria / mugikorra] daukazue

Gaztelaraz gertatzen den adjektiboekiko murriztapena ez dugu euskaraz aurkitzen eta kalifikatzaileak zein erlazionalak diren adjektiboak, biak, dira zilegi izen zenbakarria buru duten determinatzaile sintagma singularrekin interpretapen ez-espezifikoa mantentzen dela.

Estereotipotzat jo daitezkeen egitura mota hauek izaera mailako predikatuak (ingelesez *individual level predicates*) sortarazten dituzte, hau da, hitz egiten den entitatearen berezko ezaugarriak adierazten dituzten predikatuei bide ematen diete; predikatu mota hauek interpretapen ez-espezifikoa izaten laguntzen dute. Izan ere, esan dugun moduan, predikatu hauen ezaugarri garrantzitsuenetakoa da entitate baten berezko tasunen berri ematea eta hori balio kulturekin lotuta joaten da.

(87) Jonek kotxea erosi du


Adibide honen bidez Jonek daukan ezaugarri baten berri ematen da, hau da, Jon, kotxea erosi eta gero 'kotxe-jabe' bihurtu da; beste era batean esanda, Jonek kotxea erosi eta gero, 'kotxe-jabea' izatearen ezaugarria bereganatu du. Horregatik, hain zuzen, Bosqueren ustetan honelako egiturak erabiltzeko baldintza pragmatikoak gertatu behar dira. Hurrengo kasuetan argi ikusten da predikatu mota honen eragina interpretapen existentziala egiterakoan:

- (88) a. Tiene coche
a'. Kotxea dauka

Bosqueren arabera, (88) adibidean daukagun perpausaren bidez, (87) zenbakian gertatzen den moduan, adierazten dena ez da pertsona horrek kotxe hau edo beste hori duenik, baizik eta pertsona horren berezko ezaugarri bat dela kotxea edukitzea, edo Bosquek dioen bezalaxe, pertsona hori "motorizatua" edo dagoela.

Azken batean, estereotipizat jotzen dituen egiturak modu ezberdinetan azal daitezke Bosqueren ustetan. Semantikoki azal daitezke kontuan hartzen badugu kasu hauek izaera mailako predikatuak sortzen dituztela. Pragmatikoki ere azal daitezke hauetan parte hartzen duten izenak ezin baitira mota semantiko jakin batekin bakarrik erlazionatu. Sintaktikoki azaltzekotan inkorporazioan oinarritutako analisi baten beharra legoke, hau da, singular biluzia predikatuari inkorporatuko litzaioke predikatu konplexu bat sortuz. Edozein modutan ere, Bosquek ez lituzke izen hauek egiazko argumentutzat hartuko.

Bosquek ondoren datozen adibideak azaltzeko inkorporazioan oinarritutako hipotesi bat erabiltzen du. Hurrengo diagraman inkorporazioari legokiokeen eratorpen sintaktiko oso sinplea islatzen dut^{26 27}:



Gaztelerako eredu hauetan zera ikusten dugu: (89b) adibidean barne argumentua den *coche* izena (89a) ereduan agertzen den moduan, aditzari inkorporatu zaio horrela predikatu konplexu bat sortuz. Mugimendua buruz burukoa izan behar denez, barne argumentuaren ardatza den izena aditz sintagmaren buruari inkorporatzen zaio.

²⁶ Inkorporazioan oinarritutako teoria bat defendatzen da Masullo (1996) lanean. Honetan inkorporazioa proposatzen da analisi bakarra bailitzan, hau da, Bosquek inkorporazioa bakarrik proposatzen badu hiru kasuetarako --gertaera periodikoak edo alde zuzeneko gertakizunen ekimenetarako, hizkuntza administratiboan, juridikoan, eta abarretan erabiltzen diren hainbat esapidetarako eta izen eta aditz arin batez osatutako egituretarako--, Masullo azpiatal honetan ikusitako adibide guztietara zabalduko luke inkorporazioaren analisia. Kritikarako, ikus Contreras, 1996:163.

²⁷ Diagrama hauek moldapen hutsak dira.

Euskaraz, berriz, ez dago Bosquek proposatutako kasuetarako inkorporazioaren analisia besterik gabe aplikatzerik, hau da, ezin ditugu zuzenean aurreko ereduak erabili, Bosquek proposatzen duen inkorporazioaren eredu mugimendua buruz burukoa izan behar delako. Euskaraz izenak alde batera utzi beharko luke determinatzailea eta burua bakarrik mugituko balitz determinatzaile soila inkorporatuko litzaioke aditzari; gainera, ikusi dugunez euskaraz adjektiboak --erlaziozkoak nahiz kalifikatzaileak-- zilegi dira honelako egituretan. Beraz, euskaraz inkorporazioa egotekotan bestelakoa izan beharko litzateke, hau da, gazteleraz ez bezala, euskaraz honelako kasuetan inkorporazioa egon dadin, maila abstraktuago batean gertatu beharko litzateke, forma logikoan, esaterako. Honela bada ere, aditzari inkorporatuko litzaiokeen elementua ezin liteke izen hutsa izan, baizik eta determinatzaile sintagma osoa; apika, inkorporatutako elementua tarteko maila batean interpreta liteke, nahiz eta inkorporazioa ezin den tarteko gune batean gertatu. Edozein modutan ere, inkorporazioari buruzko analisi sakonago bat egin beharko litzateke honelako kasuak --eta beharbada beste batzuk-- azaltzeko.

Ikus ditzagun orain Bosqueren aburuz singular biluziak interpretapen ezespzifikoarekin onargarriak diren beste testuinguru batzuk. Esate baterako gertaera periodikoak edo aldeztatik pentsatutako ekimenak adierazten dituztenak:

- (90) a. Hubo manifestación
 b. Mañana hay examen
 c. Tendremos cena especial

Egitura hauek predikatu existentzial batekin eta gertaera bat adierazten duen barne argumentu batekin osatzen dira. Hauek osatzen dituzten predikatuak ezaugarritzatzeko balio dute. Bi osagaien arteko lotura oso estua denez Bosquek izenaren inkorporazioa gertatzen dela proposatzen du. Hona euskarazko adibideak:

- (91) a'. Manifestazioa egon zen
 b'. Bihar azterketa dago
 c'. Afari berezia izango dugu

Gazteleraz bezala, honelako egiturek determinatzaile sintagma singularrak interpretapen ezespzifikoarekin agertzeko laguntzen dute. Kasu hauetan predikatuak izaki mailakoak direnen antzekoak dira; (91)ko adibideetan, predikatuak gertaeraren ezaugarrei, ebentoei buruz hitz egiten du, hots, tipikotzat har daiteke manifestazioa egotea, azterketa izatea edo afari berezia edukitzea.

Bosquek, gauza bera esaten du hizkuntza administratiboan, juridikoan, eta abarretan erabiltzen diren zenbait esapiderekin, hala nola erabiliaren erabiliaz osagarria finkoa duten hainbat predikaturekin:

- (92) a. Hice fotocopia
b. Adjunto informe
c. Recibí carta tuya

Honelako kasuetarako Bosquek ematen duen azalpena hurrengoa da: aurreko adibideetan agertzen diren aditz eta izenaren arteko harremana oso estua denez inkorporazioaren prozesua errazten da eta horrela azaltzen ditu Bosquek. Honetaz gain, kasu hauen artean baditugu batzuk non aditza arina den, *hacer* edo *egin* aditza kasurako²⁸. Honelako ezaugarriak ere inkorporazioaren teoriaren alde egingo luke. Aditz arinekin osatutako bestelako adibideen berri ematen digu Bosquek. Kasu hauetan ere izen singular biluzia aditzari inkorporatzen zaio predikatu konplexu bat sortuz:

- (93) a. tener miedo
b. dar permiso
c. hacer fuego

Gaztelerazko egitura honetarako, euskaraz egitura bi daude, egoera ezberdinak isla ditzaketanak. Lehenengo egitura izen, determinatzaile eta, sarritan, aditz arin batez osatutakoa da eta bigarrenean izen hutsa eta aditz arin bat agertzen dira. Bosquek emandako adibide gehieneko baliokideek euskaraz determinatzailea agertzen dute (cf. (94) eta (95)), hots, lehenengo aukerako adibideak izango lirake. Bigarren egiturari dagozkion adibideak (96) zenbakian ditugu. Egitura mota honi dagokionez, euskal literaturan inkorporazioaren analisiarekin azaldu izan da (cf. Laka, 1993, Martínez, 1996, Fernández, 1997, Rodríguez eta García Murga, 2001, etabar). Honek guztiak erakusten du euskaraz gaztelerazko testuinguru berberak daudela, nahiz eta euskaraz, aukera batean behintzat determinatzailea agertzen den; beraz, gertakari beraren aurrean geundeke hizkuntza bi hauetan. Egiturok honelakoak dira:



- (94) -DS (*IS) (osagarri finkoa) eta aditza dituztenak:
a'. Liburu horretatik fotokopia ateratzeko baimena eskatu behar duzu
b'. Eskutitz honekin batera txostena atxikitzen dut
c'. Nik ere gutuna jaso nuen, baina ez nintzen zu bezain pozik jarri

²⁸ Aditz hauekin osatutako egituren analisi baterako, ikus Rodríguez eta García Murga, 2001.

- (95) -DS (*IS) eta aditz arina dituztenak:
- a'. Horrelako egoerek higuin*(-a) ematen diote edonori
 - b'. Baimen*(-a) eman dizute kontzertura joateko?
 - c'. Elkarrizketa batera joateko, bizar*(-ra) moztu behar duzu
 - d'. Euri*(-a) egiten badu, etxean geratuko gara
- (96) -IS/DS eta aditz arina eduki ditzaketenak:
- a. Partidua jokatu genuenean, min(a) hartu nuen sorbaldan
 - b. Egunero barazkiak jateari gorroto(a) diot
 - c. Hitz(a) eman nizun arren, ez dakit bete ahal izango dudan
- (97) -IS(*DS) eta aditz arina dituztenak:
- a. Lo(*-a) egitea beharrezkoa da
 - b. Mutil horrek eskolan asko hitz(*-a) egiten du
 - c. Aberatsek ere negar(*-ra) egiten dute
 - d. Lapurrek alde(*-a) egin zuten

Aurreko adibideen artean bereizketa garrantzitsu bat egin behar da. Batetik, determinatzailerik gabe agertzen diren kasuak ditugu: (96), (97). Aldi berean, aukera bi hauek ezberdin jokutzen dute, (96) zenbakiko adibideen hautazko baitute artikulua, (97) zenbakikook nahitaezko duten bitartean. Bestetik, determinatzailea agertzen duten egiturak ditugu, cf (94), (95) eta (96). (96) adibideak salbu, beste bi aukeretan determinatzailea nahitaezkoa da.

Euskaraz artikulurik ez dagoen kasuetan, hots, IS soila dugunean, Bosqueren proposamenetik abiatuz, inkorporazioaren analisisa egotzi daiteke gazteleraz egiten den legez. Determinatzailea dagoen kasuetan ez legoke inkorporazioaren analisisa zuzenean aplikatzerik, artikulua bera oztupo bihurtzen baita. Kasu hauetarako eta inkorporazioan oinarritutako analisi bat aplikatu nahiko bagenu, maila abstraktuago batean gertatu beharko litzateke, hau da, izen sintagma hutsa ez dagoen heinean, honen goragoko islapen baten inkorporazioa egon liteke forma logikoan. Ikus hurrengo diagrama argitasun gehiagorako:

(98) a. S-E / A-Eb. FL

Inkorporazioa gertatu ostean, elementu konplexu bat sortzen da, *txostena egin*, kasurako. Honen barne egitura (98b) diagraman ikus daiteke aditzaren proiektzioaren azpian.

Printzipioz, inkorporazioa gerta dadin buruz buruko mugimendu bat egon behar da. Determinatzailea dagoenez, ezin zaio izen hutsa aditzari inkorporatu eta determinatzaile sintagma osoaren inkorporazioa gertatu behar da. Honetarako buru hutsa baino goragoko islapen bat inkorporatu behar da. Goiko (98b) diagraman determinatzaile sintagma aditzaren islapenari atxikitzen zaiola erakusten da, inkorporazio prozesu abstraktu hau forma logikoan gertatzen delarik. Hau inkorporazioaren analisia mantendu ahal izateko proposamen posible bat baino ez da, zeren eta inkorporazioaren teoria (Baker, 1988) hertsiki aplikatuko bagenu, artikuluak berau galeraziko bailuke.

Azkenik, Bosquek singular biluzia duten beste kasu gramatikal batzuk aurkezten ditu. Kasu hauek erretrauek, berrien izenburuek eta antzekoek osatzen dituzte. Ikus ditzagun Bosqueren adibideak:

- (99) a. Se vende ático
 b. Introducción a ...
 c. perro que ladra no muerde
 d. casa con dos puertas mala es de guardar

Gaztelerazko adibide hauetan singular biluziak ditugu eta lortzen den interpretapena ez espezifikoa da. Kasu hauek Bosquek gramatikaltzat jotzen dituen salbuespenen artean sailkatzen ditu.

Euskaraz ere horrelakoak ditugu hurrengo (100) adibideak erakusten duenez. Hauetan artikulua azaltzen da, gazteleraz ez bezala, baina gaztelerarekin bat egiten du euskarak interpretapen ez-espezifikuari dagokionean.

- (100) a. Atikoa saltzen da
 b. ...-ren hitzaurrea
 c. andre ederra etxean gerra
 d. lan lasterra, lan alferra
 e. urte elurrezkoa, garizkoa

Beraz, orain arte ikusi dugunez, euskaraz gazteleraz ez bezala ez dago singular biluzirik. Argumentu posizioan determinatzailea beharrezkoa da. Hala ere, determinatzailea agertzen den arren, gaztelerazko singular biluzien antzeko portaera dagoela erakutsi dugu; murriztapenak ere berdinak dira.

Hortaz, esan liteke euskaraz interpretapen existentziala jasoko luketen izen zenbakarria buru duten determinatzaile sintagma singularrak eta gaztelerazko singular biluziak direnak antzeko testuinguruetan agertzen direla. Honek ez du esan nahi hauek guztiak aztertzeko bidea berdina izan behar denik. Ikusi dugunez Bosquek proposatzen duen inkorporazioaren teoria ez da euskaraz zuzenean aplikatzen eta teoria konplexu baten beharra izango genuke. Halaber, euskaraz batzuetan IS dugu eta beste batzuetan DS, determinatzaileari dagokion gunea hutsik badago ere. Honelako proposamen bat eskaini dugu aurreko (98) adibidean, nahiz eta, lehen esan bezala, aukera bat baino ez den. Hala eta guztiz ere, euskaraz zail xamarra da singularrak diren determinatzaile sintagmekin interpretapen ez-espezifikoa lortzea Bosquek proposatutako kasuak alde batera utzita:

- (101) a. Jonek jauregia erosi du
 b. Mikelek liburua lortu du
 c. Juan ha comprado *(un/el) palacio
 d. Miguel ha conseguido *(un/el) premio

Aurreko adibideetan ikusten dugu interpretapen existentziala ez dela erraz lortzen determinatzaile sintagma singularrekin, hots, jauregia erostea edota saria lortzea ez dira estereotipo kulturalak, eta horrexegatik zaila egiten da ez-espezifikotzat jotzea. Gaztelerazko kasuetan antzeko zerbait dakusagu. Alabaina, determinatzaile definitua edo indefinitua erabiliz gero, erabat arruntak dira aurreko perpausak, bai euskaraz bai eta gazteleraz ere.

Gure galdetegian agertzen diren singularreko kasuetara bueltatuko gara. Irakurketa ez-espezifikoa jasotzen zuten kasuak, ((75)-ekoak), (102) adibidean errepikatzen ditugu:

- | | | |
|-------|-------------------------------|---------------------------|
| (102) | a. Emakumeak liburua erosi du | ✓ (5/1 proportzioarekin) |
| | b. Liburua heldu da | ? (4/2 proportzioarekin) |
| | c. LIBURUA erosi du emakumeak | ?* (2/4 proportzioarekin) |
| | d. LIBURUA heldu da | ?* (2/4 proportzioarekin) |

Azpiatal honen hasieran ikusten genuenez, azken bi adibideak onarpen gutxien dutenak dira, hau da, sei pertsonetatik bik onartuko lukete interpretapen ez-espezifikoa. Galdetegian erabilitako testuinguruak naturalenak ez izatea, edota hogeita hamasei galderi erantzun ondoren arreta galtzea izan daitezke honelako datuen azalpen posibleak. Baina, lehenengo zein azkeneko bi kasuetan ditugun emaitzetarako bestelako arrazoinamenduak egon litezke. Bosquek proposatutako azalpen ildoari eusten badiogu, ikusiko dugu (102a) adibidean agertzen den *liburua* barne argumentua artikulua indefinitua izango balu bezala interpretatu ahal dela, estereotipo bat bezala, izaki-mailako predikatu bat bailitzan --emakumea 'liburu-eroslea' da interpretapenarekin, alegia. Gainera, batek pentsa lezake *liburua* eta *erosiren* artean loturaren bat edo egon litekeela. Hau horrela izan badaiteke ere, (102b) adibidean daukagun perpauserako ez dugu azalpenik aurkitu, ez bada determinatzaile sintagma singularrean daukagun determinatzailea *bat* artikulua indefinituarekin parekatua izan dela. Hala ere, adibide hau, hots (102b), estereotipotzat har badaiteke ere, esan behar da edozein izen ezingo litzatekeela egitura horretan sartu, zeren eta horrela estereotipoa izateari utziko bailioke. Ikus hurrengo adibideok:

- | | |
|-------|------------------------------------|
| (103) | a. Emakumeak hipopotamoak erosi du |
| | b. Ordenagailua heldu da |

(103) zenbakian agertzen diren perpauserak erakusten dute estereotipotzat hartutako egitura batean bestelako izen bat sartzen denean, estereotipoa desegiten dela eta interpretapen ez-espezifikoa lortzea zailagoa edo ezinezkoa egiten dela. Alegia, (103) adibideok interpretatzen dira alde aurretik aipatutako hipopotamoaz eta ordenagailuaz ari dela.

Fokalizatutako kasuetan, inkorporazioaren analisisian sinisten badugu, [liburua + erosi] eta [liburua + heldu] egitura konplexuak daudela onartu behar dugu. Hau horrela den neurrian, eta fokoa multzo batetik nabarmentzen den elementu bat den heinean, ezin daiteke egitura konplexu hauetan parte hartzen duen elementurik atera. Honek nolabait erakusten du predikatu konplexua izatea eta [liburua + erosi] edo [liburua + heldu] egituren determinatzaile sintagma

osagarria foko-gunera mugitzea kontraesanen daudela, fokoa, eratorpen sintaktikoan behintzat, aditzetik banatuta egongo bailitzateke (cf. Ortiz de Urbina, 1999).

Esapide idiomatikoekin ere antzeko jokabide bat antzematen dugu. 'Idioma' izen eta aditz batez osatzen denean, ezin daiteke osagarria soilik fokalizatu. Honen ordeaz, egitura osoa fokalizatu beharko litzateke. Egitura konplexua osatzen duten elementuren bat soilik nabarmentzen bada, perpausa esanahi literalarekin interpretatu behar da:

- (104) a. *[ADARRA jo] dio maisuak ikasleari
 b. *jo dio adarra maisuak ikasleari (Elordieta, 2001: 214)

(104a) adibidean aukera gramatikal bi ditugu: konplexu osoa fokalizatzea, hau da, [ADARRA + JO] fokalizatzea, horrela zentzu kontrastiboa antzeman daitekeelarik, --alegia maisuak ikasleari egin diona *adarra jo* izan da eta ez *nota ipini--*, edo bakarrik ADARRA fokalizatzea. Azken kasu honetan, perpausak esanahi literala hartzen du. Bakarrik ADARRA fokalizatzen bada eta ez bada zentzu literala lortzen, orduan perpaus ezgramatikal baten aurrean geundeke, (104a) adibidean agertzen den izartxoak adierazten duen bezalaxe; hots, zentzu idiomatikoa mantentzeko nahitaezkoa da *adarra* eta *jo* batera agertzea. Gauza bera esan behar da galdetegian agertzen diren *LIBURUA erosi du emakumeak* eta *LIBURUA heldu da* adibideen kasuan (cf. (102c-d)). Adibide hauek ez-espezifikoki interpretatzeko *liburua* eta *erosi* edo *liburua* eta *heldu* osagaiak batera agertu behar dira, elementu konplexu bat osatzen badute behintzat. Halaber, Elordieta (2001) lanean azaltzen den bezala, (104b) adibidearen gramatikaltasun eza fokalizatutako sintagma eta aditza bereiztuta egotean datza. Adibide honen bidez, berriro ikusten dugu fokalizatzeko modu honek ere ez duela gramatikal bihurtzen egitura hau, eta gramatikaltasuna lor dadin, beharrezkoa dela konplexu osoa --eta ez bakarrik honen elementu bat-- fokalizatzea.

Azpiatal honetan aditzera eman dut izen zenbakarria buru duten determinatzaile sintagma singularrek interpretapen ez-espezifikoa dutenean Bosquek proposatutako inkorporazioan oinarritutako analisi baten bidez azal daitezkeela. Gazteleraz honelako kasuak ditugunean, oro har, izen sintagmak ditugu; euskaraz, berriz, kasu horietan determinatzaile sintagmak agertzen zaizkigu. Dena dela, hizkuntza bietan testuinguru hauetan lortzen den interpretapena ez-espezifikoa da. Bosquek izen sintagma aditzari inkorporatzen zaiola proposatzen du. Euskararen kasuan, aldiz, izen sintagmaren eta aditzaren tartean determinatzailea daukagu, beraz, inkorporazioaren azterbideari ekitekotan, modu abstraktuago batean edo egin beharko litzateke. Edozein kasutan, badirudi mugatua dela espezifikoki interpretatzeko aukera (cf. estereotipoak ez diren (103) egiturak, besteak beste).

2.2.3. Topikalizatutako kasuak

Atal honetan galdetegian erabilitako topikalizatutako kasuei buruz dihardut. Topikoak aztertzeko, Rizzi (1997) lana aintzat hartuko dut eta honetan oinarritzen den Ortiz de Urbina (1999) ere bai, euskararen datuak azaltzeko. Topikoak perpausaren toki berezi batean agertzen dira. Rizziren eta beste askoren proposamenetan esaten denez, hauek inflexioaren gainetik geruza batean azaltzen dira, konplementatzaileak bezalako elementuak agertzen ohi diren ingurumarian, alegia. Perpausaren alderdi honi *ezkerraldeko periferia* izenarekin esaten zaio.

Konplementatzaileek egitura konplexua izan dezakete adierazten duten informazioaren arabera. Hau da, konplementatzaileek perpaus motaren berri eman ahal dute --galdera bat den, harridurazko perpausa bat den, etabar--. Informazio mota hau adierazten da, Rizziren arabera, Indarraren bitartez (ingelesezko *force*). Konplementatzaileek beste informazio mota bat ere izan dezakete: lotura bat ezarri ahal dute perpausaren barruko informazioarekin, nolabait inflexioaren menpean geratzen den edukiari erreferentzia egin ahal diote. Informazio mota hau, beti ere Rizziri jarraituaz, jokatasunaren bidez (ingelesez *finiteness*) adierazten da.

Ezkerraldeko periferia hau kontuan hartuta, perpausaren banaketa natural bat egiten da. Alde batetik, topikoak edo mintzagaiak ditugu eta bestetik, iruzkinak. Mintzagaiak ezaguna den informazioa adierazteko erabiltzen dira, hau da, perpausetik ateratzen den elementua, ezkerraldeko periferia horretan kokatzen dena da. Orokorrean koma bat egongo balitz bezala entonatzeko, perpausaren beste zatietatik bereiztuaz. Iruzkinak, berriz, topikoari buruz hitz egiteko balio du, hots, mintzagaiari buruz predikatzen duen informazio berria izango litzateke. Topikoak eta iruzkinak osatzen duten egiturak ezberdinak izan daitezke hizkuntzaz hizkuntza. Italiaraz, esaterako, Cinque (1990) lanean erabilitako terminologiaren arabera, *Clitic Left Dislocation* prozesua gertatzen denean perpausaren barruan topikoari dagokion klitiko bat agertzen da. Ingelesez, ostera, ez da klitikorik erabiltzen, baizik eta hutsune bat geratzen da hitz hurrenkera neutroan topikalizatutako sintagmari legokiokeen lekuan. Hau guztia erakusten dute hurrengo adibideek:

- (105) a. Il tuo libro, lo_i ho letto e_i
 b. John, Op_i I have seen e_i


Italiarazko adibidean *lo* klitikoa daukagu. Honek topikalizatuta agertzen den *il tuo libro* sintagmari erreferentzia egiten dio. Hau hizkuntza erromantzeetan arrunta den gertakaria da. Ingelesez, klitikorik ezean, operatzaile huts bat dagoela proposatzen du Rizzik. Mintzagaiak operatzaile hori identifikatuko du. Nolabait operatzaile hutsak eta klitikoak antzeko funtzioa

beteko lukete, hau da, mintzagaia eta hitz hurrenkera neutroko perpaus batean topikoari legokiokkeen perpaus barneko posizioa lotzea. Haatik, bada hizkuntza mota hauen arteko ezberdintasun bat: erromantzez, topikoa bera mugitzen omen da; ingelesez, topikoa dagoen lekuan sortzen da eta operatzailea bera mugitzen da.

Hizkuntza erromantzeetan eta ingelesean topikotze egiturak nolakoak diren ikusi dugu. Ikus ditzagun (105) adibidean agertzen diren euskarazko baliokideak:

- (106) a. Zure liburua, irakurri dut
b. Jon, ikusi dut

Euskarazko adibideetan ez dugu klitikorik ikusten, euskaraz ez baitago klitikorik. Hau aintzat hartuta Ortiz de Urbina (1999) lanak proposatzen du euskaraz, klitikorik ezean, operatzaile huts bat dagoela, hain zuzen ere, ingelesez gertatzen den bezala. Lan honetan aipatutako lan honi jarraitzen diot. Era berean, euskarazko topikotze egitura azaltzeko Rizik ingeleserako proposatzen duen operatzaile hutsaren hipotesia erabiliko dut. Ikus dezagun ingelesari datxekion eratorpen sintaktikoa:




Ortiz de Urbina (1999) lanean, Rizzi (1997) lana aintzat harturik, euskarazko topikotzeetan operatzaile hutsa agertzen dela esaten du. Operatzaile honek, Rizzi esaten duen modura, perpausaren barruan uzten duen azterna gobernatzen du eta aldi berean topikalizatutako sintagmarekin identifikatzen da. Hiru elementu hauek, topikalizatutako sintagma, operatzaile hutsa eta azterna indizekideak izango lirateke. Hona hemen hau erakusten duen diagrama:

(108) TopS [DS_i [Op_i.....t_i.....]]

Ortiz de Urbina (1999) lanarekin batera euskararako proposatzen ari garen mekanismo honetan topikoak goiko posizioan sortuko lirateke, beraz, ez legoke perpausaren barneko posizio batetik besterako topikalizatutako sintagmaren egiazko mugimendurik. Berriz, ezkerraldeko mugimenduetan, hitzak berak esaten duen moduan, beheko posizio batetik goragoko baterako mugida dago. Euskarazko kasuan, mugimendua ez dagoela esaten badugu, eta beraz, topikoa goiko posizioan sortzen bada, orduan ez da harrizkoa interpretapen ezespezifikoa onargarria ez izatea, posizio honetan topikalizatutako elementuak gobernutik kanpo baitaude eta perpaus ezgramatikalak sortuko dira. Ez da gobernuaren baldintza betetzen determinatzailearen gunea interpretapen ezespezifikoarekin hutsik dagoelako. Ortiz de Urbina (1999) lanean oinarrituta honelakoa izango litzateke euskarari legokiokeen eratorpen sintaktikoa topikalizatutako objektua ezespezifikoa denean:

(109) Liburuak, atera dira



Hipotesi hau baieztatzera datoz gure galdetegiko datuak. Oro har, topikalizatutako objektuekin ikusten dugu interpretapen existentziala ez dela onartzen. Hauek dira, hain zuzen ere, gure galdetegiko datuak:

- | | |
|---------------------------------------|---------------------------|
| (110) a. Liburuak, emakumeak erosi du | * (0/6 proportzioarekin) |
| b. Liburuak, emakumeak erosi ditu | * (1/5 proportzioarekin) |
| c. Liburuak, atera egin da | * (1/5 proportzioarekin) |
| d. Liburuak, atera egin dira | %(3/3 proportzioarekin) |
| e. Azukrea, emakumeak erosi du | * (0/6 proportzioarekin) |
| f. Ura, (balkoitik) sartu da | ?* (2/4 proportzioarekin) |

Datu hauetan zera islatzen da: topikalizatutako objektuak ez direla onargarri gertatzen irakurketa ezespezifikoa jasotzen dutenean, gobernaturik ez daudelako. Hala ere, badira bi kasu zeinetan onargarritasun maila handiagoa den; hauek (110d) eta (110f) adibideak dira. Honelako kasuak ez dira erraz azaltzen Rizzi edota Ortiz de Urbinaren teoriak aintzat hartzen baditugu ere. Beharbada, predikatu monadikoa edo diadikoa izatea garrantzitsua izan daiteke interpretapen ezespezifikoa egiterakoan, baina hau espekulazio hutsa da. Orokorrean, esan daiteke galdetegiko datuak azpiatal honetan emandako azalpenera egokitzen direla.

Euskararen topikalizaziozko kasuak ingelesarekin italiarekin baino antz handiagoa daukala iradokitzen du hurrengo argumentuak. Euskal Herrian hitz egiten den gaztelaren bitxitasun bat ideia honen aldeko froga bat dugu. Euskaraz klitikorik ez dagoenez, gaztelaraz hitz egiten duen jende euskaldunak ez omen ditu gaztelaraz erabili beharko lirerateen klitikoak erabiltzen, hau da, (112) zenbakian (111) adibidean agertzen den euskarazko perpausaren gaztelarako bertsioak ditugu. (112a) adibidearen kasuan Euskal Herriko gaztelera dugu eta (112b) perpausa gaztelera tradizionalari legokioke:


- (112) Azterketa, jadanik egin dut
- (113) a. El examen, ya he hecho
- b. El examen, ya lo he hecho

IkuSten denez, euskaraz zein Euskal Herriko gaztelaraz ez da klitikorik agertzen. Honek euskaraz topikotzea gerta dadin topikoaren beraren mugimendua ez dela gertatzen froga dezake.

Euskararen topikotze egitura ingelesaren antzekoa delako ideia honekin bat egiten duen beste froga bat gaztelarazko aditz aurreko subjektuetan aurkitzen dugu. Contreras (1986:43) lanean azaltzen denez, gaztelaraz ezin da aditz aurreko subjektu ezespezifikorik egon topikalizatutako objektua ez badago hitz hurrenkera neutroan legokiokeen posizioarekin indizekideturik, zeren eta posizio horretan gobernuaren baldintza beteko bailitzateke:

- (113) a. Estudiantes_i, no creo que [vengan e_i]
- b. *Estudiantes, no creo que [[hayan leído ese libro] t]


Goiko (113a) kasuan topikalizatutako elementua gobernatuta dagoen posizio bateko izen sintagma biluziarekin indizekideturik dago. (113b) kasuan ez dago koindizatzerik. Contrerasek honako egitura proposatzen du (113a) bezalako adibideetarako:



Contrerasesek subjektu hauek inflexio sintagmari adjunktatuta daudela argudiatzen du. Posizio horretan subjektuak ezin izango luke aditzaren gobernuia eduki²⁹ eta horrela interpretapen ezespezifikoa ez litzateke onargarria izango. Contrerasen argudio hau erabiltzen dut azken finean berak gaztelerazko aditz aurreko subjektuetarako proposatzen duen posizioa eta euskarazko topikoak betetzen duena oso antzekoak baitira. Are gehiago, Contrerasesek (1996) lanean ere ideia honen alde egiten du esanez gaztelerazko aditz aurreko subjektu posizioan determinatzaile sintagma ezin direla ezespezifikoak izan:

- (115) a.*Estudiantes lloran
b.*Estudiantes saben matemáticas

Gaztelerazko hitz hurrenkera neutroa AOS denean eta subjektuaren mugimendua dagoela proposatzen duenean, Contrerasesek iradokitzen du subjektu horiek inflexio sintagmari atxikituak agertu behar direla:



Proposamen hau ere lan honetarako erabili dut Contrerasesek gaztelerazko aditz aurreko subjektuetarako proposatzen duena eta lan honetan erabilitako topikoen egiturak antzekoak izan daitezkeelako.

Euskarak zergatik egiten duen ingelesarekin bat azaldu badut ere, ikus dezagun zer gertatuko litzatekeen kontrako arrazoinamendua egingo bagenu, hau da, euskarak italieraren

²⁹ Gogoratu kasu honetan gobernuaren baldintza beteko litzatekeela indizekidea den determinatzaile sintagma gobernatuta dagoen posizio batean baitago. Euskaraz, berriz, (113b) kasuan gertatzen denez, ez dago koindizatzerik eta beraz ezgramatikalak gertatzen dira topikalizatutako objektu ezespezifikoak.

ereduari jarraitzen diola esango bagenu. Kasu honetan esan beharko genuke irakurketa existentziala beti izango litzatekeela zilegi, zeren mugimendua dagoenez, topiko posizioan amaitzen duen elementua beheko posizio batean gobernatuta egon baitaiteke eta, hortaz, interpretapen ez-espezifikoa onargarria izan beharko litzateke. Galdetegiaren datuetan ikus daitekeenez, (110d) eta (110f) adibideetan aipatutako kasu marginalak salbu, beti baztertzan da, beraz, ez dira elementu existentzialak zilegi izaten topikalizatuta baldin badaude.

Laburbilduz: Rizzi (1997) eta Ortiz de Urbina (1999) lanak aintzat harturik, argudiatu dut euskarazko mintzagai egitura ingelesaren topikotzearen modukoa dela. Operatzaile hutsa dagoela onartu dut eta frogatu dut euskaraz topikalizaziorako jarraitzen duen eredu ingelesaren antzekoa dela. Ondorio nagusi bezala esan daiteke topikalizatutako elementuak ezin direla existentzialki interpretatu oso kasu isolatuetan izan ezik. Hau da, hain zuzen ere, gure galdetegiak erakusten duen emaitza.

3.- ONDORIOAK

Lan honekin argudiatu izan dugu artikuluko definitutzat hartua izan den $-a(k)$ atzizkiak balio ez-espezifikoa ere izan dezakeela. Euskarazko determinatzaile sintagmaren balio ez-espezifikoa dugunean, sintagma biluziak dituzten hizkuntzetan balio hau berarekin determinatzaile ezaren bidez adierazten dute (cf. Longobardi, 1994). Galdetegitik ateratako datuek erakutsi bezala, plural eta masa izenak dira interpretapen existentzial hau sarriago aurkezten dutenak. Beraz, honen arabera, galdetegiko datuak joera unibertsal baten erakusgarri izango lirateke.

Interpretapen ez-espezifikoa dugunean sintaxi mailan, bederen, determinatzaileari dagokion gunea hutsik egon behar dela eta posizio horrek aditzak gobernatuta egon behar duela proposatzen dute Longobardi (2000) eta Artiagoitia (2002) lanek. Ikerlan hauei esker eratorpen sintaktiko ezberdinak izango genituzke determinatzaile sintagma espezifikoko baterako eta ez-espezifikoko baterako.

Singularrei dagokienez, interpretapen existentziala lortzeko murriztapen gehiago daudela frogatzen du gure galdetegiak. Gaztelarako datuekin konparatuta ikusi ahal izan dugu jokabide hau ez dela bakarrik euskararena berarena, baizik eta gaztelera bezalako hizkuntza batean ere singularrek eragozpenak dituzte. Bosque (1996) lanaren aburuz, determinatzaile sintagma singularren interpretapen ez-espezifikoa arrunta izan daiteke testuinguru mugatu batzuetan, hala nola, aditz intentsionalekin, estereotipo kulturekin, eta antzekoekin. Hauen portaera sintaktikoa azaltzeko Bosquek inkorporazioan oinarritutako hipotesia defendatzen du.

Hipotesi hau euskararen kasura hurbildu dugu eta lanean bertan erakutsi dugu euskarazko kasu gehienak ere honen bidez azal litezkeela, salbuespenak salbuespen.

Topikalizatutako sintagmetan interpretapen existentziala zilegi ez dela diote galdetegiko datuek. Ezintasun hau azaltzeko balio duten zenbait baldintza sintaktiko dago, esaterako gobernu lexikoarena. Topikalizatutako kasu hauen eredia ingelesarena dela eta ez italerarena argudiatu dugu honen aldeko frogak bilduz.

Azken finean, lan honek zera erakusten du: literaturan ahaztuta egon den artikularen balio ezespezifikoa ere lor daitekeela testuinguru jakin batzuetan; testuinguru hauek ez direla kontestu bereziak, baizik eta joera unibertsal baten erakusgarri direla; kasu bakoitzean proposatzen dugun azalpen teorikoa ere orokorra dela, hots, ez dugula teoria berezirik asmatu behar euskararen datuak azaltzerakoan, baizik eta gramatika unibertsalean aurkitzen ditugun bideak ere erabil daitezkeela euskararen kasuan bertan.

Ikerlan hau argumentu posizioetan agertzen diren sintagmetara murriztuta dagoen heinean, baditu bere mugak. Aztertzeke geratzen dira, beraz, aztertutako posizioetatik at agertuko liratekeen determinatzaile sintagmen portaerak; era berean, absolutiboz baino beste kasuetako sintagmak ere aztertu beharko lirateke euskal artikularen deskribapen oso bat egin nahi bada.

4.- ERANSKINAK

4.1. Galdetegia

1.- Liburudenda batean lan egiten duzu. Ixtekotan zaudela emakume bat, gizon bat eta gazte batzuk sartzen dira zure dendan zerbait erostera. Erosketak egin ondoren zure nagusia ikusten duzu dendan sartzen eta zuzenean galdetzen dizu zelako salmenta egin duzun egunean zehar eta zuk erantzuten diozu:

(1) Liburua, emakumeak erosi du

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

2.- Oso ospetsua den idazle baten laguna zara eta badakizu azken hilabete hauek historiari buruzko liburu bat idazten eman dituela. Egun batean, kasualitatez, kalean topo egiten duzu berarekin eta galdetzen diozu liburuarekin zer gertatu den eta honek erantzuten dizu:

(2) Liburua, atera da (azkenean)

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

3.- Gizon bat denda batera doa azukrea erostera, baina heltzen denean ikusten du bakarrik pakete bat dagoela eta bere aurretik pasatu den andre batek hartu egin duela. Egoera hau ikusten ari zara eta azukrea erosi nahi zuen hirugarren pertsona batek azukrearekin zer gertatu den galdetzen dizu eta zuk erantzuten diozu:

(3) Azukrea, emakumeak erosi du

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

4.- Liburudenda batean lan egiten duzu. Azken orduan, zure nagusiari komentatzen diozu egun horretan hiru gauza baino ez zaizkizula geratzen: Chomskyren bi saiakera eta Sarasolaren hiztegia. Emakume bat sartzen da dendan zure nagusiak irten behar duen momentuan. Nagusia bueltatzen denean galdetzen dizu zer erosi duen emakumeak eta zuk erantzuten diozu:

(4) SAIAKERAK erosi ditu emakumeak

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

5.- Joan den astean kanpoan bizi den lagun bati eskatu zenion hizkuntzalaritzari buruzko hiru liburu eta hiztegi bat postaz bidaltzeko. Zure etxera joaten den postariari komentatzen diozu gauza hauen zain zaudela. Orduan, aste bat pasata, postariak esaten dizu baduzula pakete bat postetxean eta zuk galdetzen diozu zer heldu den. Berak erantzuten dizu:

(5) LIBURUAK heldu dira

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

6.- Iragarki bat ikusten ari zara zure lagun batekin. Honetan mutil bat bere etxean sartzen ari da eta konturatzen da lurrean zerbait erori dela dena bustita dagoelako. Zuk momentu horretan egongelatik irten behar duzu. Bueltatzen zarenean zure lagunari galdetzen diozu ia zer erori den eta honek erantzuten dizu:

(6) URA erori da

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

7.- Gaur etxera heldu zarenean zure amak esan dizu postetxetik deitu egin dizutela. *Harry Potter* izeneko liburu bat aipatu diote amari baina berak ez du ondo ulertu mezua eta horregatik postetxerantz abiatzen zara. Hara heltzen zarenean postetxekoari galdetzen diozu ea zer gertatu den eta berak erantzuten dizu:

(7) Liburua heldu da (jadanik)

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

8.- Iragarki bat ikusten ari zara lagun batekin. Honetan Don Perignon izeneko txanpaina ezagutarazten ematen ari dira eta horretarako konpromezu bat daukan emakume bat agertzen da. Emakumeak ondo geratu nahi du eta zer egin ahal duen erabaki behar duenean telefonora deitzen dizute eta ezin duzu ikusi zer egiten duen. Bueltatzen zarenean zure lagunari galdetzen diozu zer gertatu den eta honek erantzuten dizu:

(8) Emakumeak txanpaina erosi du

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

9.- Etxean zaudela, ur patzuergokoek esaten dizute automatikoki ura kendu behar dutela ordu bietarako. Handik hamar minutura, etxeko txirrina jotzen dute, eta zure auzokoa ikusten duzu (harrituta). Zer gertatzen den galdetzen diozu, eta berak erantzuten du:

(9) Ura joan da

Egokia al da perpaus hau testuinguru honetan?

10.- Iragarki bat ikusten ari zara zure lagun batekin. Emakume bat Corte Inglesean sartzen da gauza pare bat egiteko: *Los pilares de la tierra* liburua erosteko eta aurreko egun batean erositako jantzi bat aldatzeko. Erlojuari begira gelditzen da eta konturatzen da gauza hauetako bat bakarrik egiteko denbora izango duela. Momentu honetan zuk egongelatik alde egin behar duzu eta ezin duzu ikusi azkenean zer erabakitzen duen, beraz, bueltatzen zarenean zure lagunari galdetzen diozu ea zer gertatu den eta berak erantzuten dizu:

(10) Emakumeak liburua erosi du

Egokia al da perpaus hau testuinguru honetan?

11.- Liburudenda batean lan egiten duzu eta zure nagusiarekin komentatzen ari zara egun horretan bakarrik geratzen zaizuela liburu bat saltzeko, *Los pilares de la tierra*, hain zuzen ere. Azken orduan, berriz, emakume bat, gizon bat eta gazte gatzuk sartzen dira zure dendan zerbait erostera. Zure nagusiak dendatik irten behar du mandatu bat egitera eta ezin du ikusi pertsona hauek erosten dutena. Horregatik dendara itzultzen denean zure nagusiak galdetzen dizu ea liburuarekin zer gertatu den eta zuk erantzuten diozu:

(11) Liburua, emakumeak erosi du

Egokia al da perpaus hau testuinguru honetan?

12.- Liburudenda batean lan egiten duzu. Emakume bat sartzen da dendan eta zenbait gauza aukeratu ondoren, ordaintzen dizu eta badoa. Momentu horretan zure nagusia heltzen da dendara eta emakumea dendako poltsa batekin ikusita galdetzen dizu zer erosi duen emakumeak eta zuk erantzuten diozu:

(12) LIBURUAK erosi ditu emakumeak

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

13.- Erloju bat erosi berria duzu, baina erosi eta hurrengo egunean ez dabil. Mekanikoari galdetzen diozu ea zer demontre gertatzen den, eta erantzuten dizu:

(13) Ura sartu da (erlojuan)

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

14.- Argitaletxe bat ireki dute eta zure lagun batek lan egiten du bertan. Hasieran arazoak izan zituztela jakin duzu eta ea jadanik ondo funtzionatzen duen jakin nahi duzu, beraz, galdetzen diozu ea konpondu egin duten eta berak erantzuten dizu:

(14) Liburua, atera da (azkenean)

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

15.- Iragarki bat ikusten ari zara zure lagun batekin. Emakume bat Corte Inglesean sartzen da gauza pare bat egiteko. Erlojuari begira gelditzen da eta konturatzen da gauza gutxi egiteko denbora izango duela. Momentu honetan zuk egongelatik alde egin behar duzu eta ezin duzu ikusi azkenean zer erabakitzen duen, beraz, bueltatzen zarenean zure lagunari galdetzen diozu ia zer gertatu den eta berak erantzuten dizu:

(15) Emakumeak liburuak erosi ditu

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

16.- Oso ospetsua den idazle baten laguna zara eta badakizu azken hilabete hauek liburu batzuk idazten pasatu dituela. Egun batean, telefonoz deitzen diozu eta galdetzen diozu ea liburuekin zer gertatu den eta berak erantzuten dizu:

(16) Liburuak, atera dira (dagoeneko)

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

17.- Iragarki bat ikusten ari zara lagun batekin. Honetan konpromezu bat daukan emakume bat agertzen da. Emakumeak ondo geratu nahi du eta zer egin ahal duen erabaki behar duenean telefonora deitzen dizute. Bueltatzen zarenean zure lagunari galdetzen diozu zer gertatu den eta honek erantzuten dizu:

(16) Emakumeak txanpaina erosi du

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

18.- Joan den astean kanpoan bizi den lagun bati eskatu zenion hainbat gauza postaz bidaltzeko. Zure etxera joaten den postariari komentatzen diozu zerbaiten zain zaudela. Orduan, aste bat pasata, postariak esaten dizu baduzula pakete bat postetxean eta zuk galdetzen diozu zer heldu den. Berak erantzuten dizu:

(18) LIBURUAK heldu dira

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

19.- Liburudenda batean lan egiten duzu eta egun horretan bi liburu geratzen zaizkizu saltzeko: *Los pilares de la tierra* eta *La sonrisa etrusca*. Azken orduan, zure nagusiarekin hau komentatzen ari zarela emakume bat, gizon bat eta gazte batzuk sartzen dira dendan liburu batzuk erosi nahian. Zure nagusiari telefonoz deitzen diote eta dendatik irteten da. Bitartean, pertsona hauek erosketak egiten dituzte eta dendatik irteten direnean zure nagusia bueltatzen da. Honek galdetzen dizu zer gertatu den liburuekin eta erantzuten diozu:

(19) Liburuak, emakumeak erosi ditu

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

20.- Gaur etxera heldu zarenean zure amak esan dizu postetxetik deitu egin dizutela esateko hara joan behar duzula. Orduan, postetxera joaten zarenean han aurkitzen duzun gizonari galdetzen diozu zer gertatu den eta berak erantzuten dizu:

(20) Liburua heldu da

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

21.- Argialetxe bat ireki dute eta zure lagun batek lan egiten du bertan. Hasieran arazoak izan dituztela jakin duzu eta ea jadanik ondo funtzionatzen duen jakin nahi duzu, beraz, galdetzen diozu ea konpondu egin duten eta berak erantzuten dizu:

(21) Liburuak, atera dira

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

22.- Liburudenda batean lan egiten duzu. Zure nagusiarekin hitz egiten ari zarela, emakume bat, gizon bat eta gazte batzuk sartzen dira dendan liburu batzuk erosi nahian. Zure nagusiak dendatik irten behar du mandatu bat egitera. Bitartean, pertsona hauek erosketak egiten dituzte eta ondoren zure nagusia bueltatzen da. Honek galdetzen dizu zelako salmenta egin duzun eta zuk erantzuten diozu;

(22) Liburuak, emakumeak erosi ditu

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

23.- Gaur etxera heldu zarenean zure amak esan dizu postetxetik deitu egin dizutela esateko hara joan behar duzula. Orduan, postetxera joaten zarenean han aurkitzen duzun gizonari galdetzen diozu zer gertatu den eta berak erantzuten dizu:

(23) Liburuak heldu dira zuretzat

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

24.- Emakume bat denda batera doa hainbat gauza erostera eta behar dituen gauza guztiak hartu ondoren, badoa. Bi minutu pasata, zure nagusia dendara heltzen da eta galdetzen dizu zelako salmenta egin duzun eta zuk erantzuten diozu:

(24) Azukrea, emakumeak erosi du

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

25.- Iragarki bat ikusten ari zara zure lagun batekin. Emakume bat Corte Inglesean sartzen da gauza pare bat egiteko. Erlojuari begira gelditzen da eta konturatzen da denbora gutxi duela nahi

duen guztia egiteko. Momentu honetan zuk egongelatik alde egin behar duzu eta ezin duzu ikusi azkenean zer erabakitzen duen, beraz, bueltatzen zarenean zure lagunari galdetzen diozu ea zer gertatu den eta berak erantzuten dizu:

(25) Emakumeak liburua erosi du

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

26.- Joan den astean kanpoan bizi den lagun bati eskatu zenion liburu bat eta hiztegi batzuk postaz bidaltzeko. Zure etxera joaten den postariari komentatzen diozu gauza hauen zain zaudela. Orduan, aste bat pasata, postariak esaten dizu baduzula pakete bat postetxean eta zuk galdetzen diozu zer heldu den. Berak erantzuten dizu:

(26) LIBURUA heldu da

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

27.- Gaur etxera heldu zarenean zure amak esan dizu postetxetik deitu egin dizutela. *Harry Potter* eta *El Señor de los anillos* izeneko liburuak aipatu dizkiote amari baina berak ez du ondo ulertu mezua eta horregatik postetxerantz abiatzen zara. Hara heltzen zarenean postetxeko bati galdetzen diozu ea zer gertatu den eta berak erantzuten dizu:

(27) Liburuak heldu dira (zuretzako)

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

28.- Kanpora zoaz pare bat egun pasatzera eta irratian entzuten duzu Euskal Herrian itsasikarak izan direla. Halako batean, auzoko batek ditzen dizu mugikorrera; Harrituta, zer gertatu den galdetzen diozu eta berak erantzuten dizu :

(28) Ura, (balkoitik) sartu da

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

29.- Iragarki bat ikusten ari zara zure lagun batekin. Horretan emakume bat ikusten duzu supermerkatu batean. Berak hainbat gauza erosi nahi ditu: azukrea, kafea, esnea, olio, ..., baina konturatzen da oso diru gutxi duela hori guztia erosteko. Zer erosiko duen erabakitzen ari

denean, zuk egongelatik irten behar duzu eta ezin duzu ikusi zer hartuko duen. Bueltatzen zarenean zure lagunari galdetzen diozu ea zer erosi duen emakumeak eta honek erantzuten dizu:

(29) AZUKREA erosi du emakumeak

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

30.- Joan den astean kanpoan bizi den lagun bati eskatu zenion hainbat gauza postaz bidaltzeko. Zure etxera joaten den postariari komentatzen diozu zerbait espero duzula. Orduan, aste bat pasata, postariak esaten dizu baduzula pakete bat postetxean eta zuk galdetzen diozu zer heldu den. Berak erantzuten dizu:

(30) LIBURUA heldu da

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

31- Iragakari bat ikusten ari zara zure lagun batekin. Emakume bat Corte Inglesean sartzen da gauza pare bat egiteko: *Los pilares de la tierra* eta *La sonrisa etrusca* liburuak erosi eta aurreko egun batean erositako jantzi bat aldatzeko. Erlojuari begira gelditzen da eta konturatzen da gauza hauetako bat egiteko denbora izango duela bakarrik. Momentu honetan zuk egongelatik alde egin behar duzu eta ezin duzu ikusi azkenean zer erabakitzen duen, beraz, bueltatzen zarenean zure lagunari galdetzen diozu ea zer gertatu den eta berak erantzuten dizu:

(31) Emakumeak liburuak erosi ditu

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

32.-Denda batean lan egiten duzu. Nagusiari egun horretan hiru gauza baino ez zaizkizula geratzen komentatzen diozu: disko bat, luma bat eta liburu bat. Emakume bat sartzen da dendan zure nagusiak alde egin behar duenean. Geroago, emakumea dendatik irteten ari delarik, zure nagusia bueltatzen da eta galdetzen dizu ea zer erosi duen emakumeak. Zuk erantzuten diozu:

(32) LIBURUA erosi du emakumeak

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

33.- Iragakri bat ikusten ari zara zure lagun batekin. Iragakrian mutil bat agertzen da kafetegi batean. Honek hainbat gauza ditu eskuartean: kafe bat, azukrea, pintxo bat eta botila bat ur. Halako batean, bultzada bat ematen diote eta horren ondorioz zerbait erori dela ikusten duzu. Zuk momentu horretan egongelatik alde egin behar duzu. Bueltatzen zarenean, zure lagunari galdetzen diozu ea zer erori den eta berak erantzuten dizu:

(33) URA erori da

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

34.- Denda batean lan egiten duzu. Zure nagusiak eta biok emakume bat sartu dela ikusten duzue. Hala ere, zure nagusiak alde egin behar duenez, ezin du ikusi emakumeak erosten duena, horregatik bueltatzen denean galdetzen dizu ea zer erosi duen emakumeak eta zuk erantzuten diozu:

(34) LIBURUA erosi du emakumeak

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

35.- Iragakri bat ikusten ari zara zure lagun batekin. Horretan emakume bat ikusten duzu supermerkatu batean. Zer erosiko duen erabakitzen ari denean, zuk egongelatik irten behar duzu. Bueltatzen zarenean, zure lagunari galdetzen diozu ea zer erosi duen emakumeak. Honek erantzuten dizu:

(35) AZUKREA erosi du emakumeak

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

36.- Taberna batean lan egiten duzu eta bihar jai bat antolatu behar duzu bertan. Tabernan ez zenezkan hainbat gauza eskatu behar izan dituzu: ardoa, garagardoa, ... Zure nagusia pixkat despistatuta dago kontu hauekin eta halako batean ardoarekin zer gertatu den galdetzen dizu eta zuk erantzuten diozu:

(36) Ardoa, heldu da (goizean)

Egokia al da perpausa testuinguru honetan?

4.2. Erantzunen taulak

4.2.1. Hitz hurrenkera neutroko objektuak

ZENBAKARRIAK					
ESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	Singularra	6/0	✓	(10)
		Plurala	6/0	✓	(31)
	Predikatu monadikoa	Singularra	6/0	✓	(7)
		Plurala	6/0	✓	(27)
EZESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	Singularra	5/1	✓	(25)
		Plurala	6/0	✓	(15)
	Predikatu monadikoa	Singularra	4/2	? ✓	(20)
		Plurala	6/0	✓	(23)

ZENBAKAITZAK				
ESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	6/0	✓	(8)
	Predikatu monadikoa	6/0	✓	(9)
EZESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	6/0	✓	(17)
	Predikatu monadikoa	6/0	✓	(13)

4.2.2. Fokalizatutako objektuak

ZENBAKARRIAK					
ESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	Singularra	6/0	✓	(32)
		Plurala	6/0	✓	(4)
	Predikatu monadikoa	Singularra	6/0	✓	(26)
		Plurala	6/0	✓	(5)
EZESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	Singularra	2/4	*?	(34)
		Plurala	5/1	✓	(12)
	Predikatu monadikoa	Singularra	2/4	*?	(30)
		Plurala	5/1	✓	(18)

ZENBAKAITZAK				
ESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	6/0	✓	(29)
	Predikatu monadikoa	6/0	✓	(33)
EZESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	6/0	✓	(35)
	Predikatu monadikoa	6/0	✓	(6)

4.2.3. Topikalizatutako objektuak

ZENBAKARRIAK					
ESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	Singularra	6/0	✓	(11)
		Plurala	5/1	✓	(19)
	Predikatu monadikoa	Singularra	6/0	✓	(2)
		Plurala	6/0	✓	(16)
EZESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	Singularra	0/6	*	(1)
		Plurala	1/5	*	(22)
	Predikatu monadikoa	Singularra	1/5	*	(14)
		Plurala	3/3	%	(21)

ZENBAKAITZAK				
ESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	6/0	✓	(3)
	Predikatu monadikoa	6/0	✓	(36)
EZESPEZIFIKOAK	Predikatu diadikoa	0/6	*	(24)
	Predikatu monadikoa	2/4	*?	(28)

5.- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- A *grammar of Basque*, J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), eskuizkribua, 324-329.
- Artiagoitia, X., (1997), DP Predicates in Basque, A. Taff (arg.), *University of Washington Working Papers in Linguistics*, 15, 161-198.
- Artiagoitia, X., (2000), *Hatsarreak eta Parametroak Lantzen*, EHU-Arabako Foru Aldundia.
- Artiagoitia, X., (2002), The Functional Structure of the Basque Noun Phrase, X. Artiagoitia, P. Goenaga eta J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf de Rijk*, ASJU XLIV, Donostia, 73-90.
- Azkue, R. M., (1969)[1925], *Morfología Vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Bosque, I., (1996), Por qué determinados sustantivos no son sustantivos determinados. Repaso y balance, I. Bosque (arg.), *El sustantivo sin determinación*, Visor Libros, Madrid, 13-119.
- Carlson, G. N., (1980), *Reference to Kinds in English*, Garland Publishing, New York & London.
- Contreras, H., (1986), Spanish Bare NPs and the ECP, I. Bordelais eta beste (arg.), *Generative Studies in Spanish Syntax*, Foris, Dordrecht, 25-49.

- Contreras, H., (1996), Sobre la distribución de los sintagmas nominales no predicativos sin determinante, I. Bosque (arg.), *El Sustantivo sin determinación*, Visor Libros, Madrid, 141-168.
- Diesing, M., (1992), *Indefinites*, MIT Press, Cambridge.
- Euskaltzaindia, (1993), *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Lafitte, P., (1995)[1944], *Grammaire Basque*, Elkar, Donostia.
- Laka, I., (1993), Unergatives that Assign Ergative, Unaccusatives that Assign Accusative, J. Bobaljik eta C. Phillips (arg.), *Papers on Case & Agreement I*, MIT Working Papers in Linguistics, 18, 149-172.
- Longobardi, G., (1994), Reference and Proper Names: A theory of N-Movement in Syntax and Logical Form, *Linguistic Inquiry* 25.4, 609-665.
- Longobardi, G., (2000), The Structure of DPs: Some Principles, Parameters and Problems, C. Collins eta M. Baltin (arg.), *The Handbook of Contemporary Syntactic Theory*, Blackwell, Oxford, 562-601.
- Lois, X., (1996), Los grupos nominales sin determinante y el paralelismo entre la oración y la frase nominal, I. Bosque (arg.), *El Sustantivo sin determinación*, Visor Libros, Madrid, 201-238.
- Masullo, P. J., (1996), Los Sintagmas Nominales sin Determinante: Una Propuesta Incorporacionista, I. Bosque (arg.), *El Sustantivo sin determinación*, Visor Libros, Madrid, 169-200.
- Ortiz de Urbina, J., (1999), Force Phrases, Focus Phrases, and Left-Heads in Basque, J. Franco, A. Landa eta J. Martin (arg.), *Grammatical Analyses in Basque and Romance Linguistics. Papers in honor of Mario Saltarelli*, John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 179-194.
- Rijk, R. de, (1998), *De Lingua Vasconum: Selected Writings*, ASJU XLIII: 151-182, Donostia.
- Rizzi, L., (1997), The Fine Structure of the Left Periphery, L. Haegemann (arg.), *Elements of Grammar*, Kluwer, Dordrecht, 281-338.
- Rodríguez, S., eta F. García Murga, (2001), Noun + *egin* predicates in Basque, M. J. Arche eta A. Reder (arg.), *Cuadernos de Lingüística del Instituto Ortega y Gasset VIII*, Madrid, 37-51.
- Txillardegui, (1978), *Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas, Donostia.
- Villasante, L., (1972), *La Declinación del Vasco Literario Común*, Editorial Franciscana de Aranzazu, Donostia.
- Villasante, L., (1983), *Estudios de Sintaxis Vasca*, Editorial Franciscana Aranzazu, Donostia.